
hirukа

148. zenbakia
2019ko ekaina



FAKE NEWS, EGIA-OSTEA ETA DESINFORMAZIOA

Gezurraren kulturan murgilduta

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon, Kerman Santiago, Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Leire Arkotxa, Izei Azkue, Asier Barruetabeña, Jokin de Pedro, Fernando Mijangos, Eunate Muruaga eta Jon Ormaza.
Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu
Leioa Udala-Ayuntamiento
Erandio Elizateko Udala
Berangoko Udala
Plentziako Udala
Gorlizko Udala
Urdulizko Udala
Barrikako Udala
Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Gezurraren kultura berria


Aurkibidea

4 ***Fake News* eta desinformazioa**
12 **Hizkuntzaren zalantzategia**
13 **Gatz-ozpinetan**
14 **Historiaren ganbara**
15 **Sexualitate koloretsua**
16 **Mundu biribil hau**
18 **Hirudika: Eider Moreno eta Lola Guerricaechevarria**
24 **Ricardo Mutuberria: «Edonork eduki behar du aukera zientzia lantzeko»**
28 **Euskal kantutegia, jalgi plazara!**
39 **Musikhariak: Aukera Okerra**
40 **Gorlizko erietxea: ehun urtez garai berriei egokitzen**
42 **EusLider, Getxon euskara sustatzen**
44 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**



Ricardo Mutuberria, z herritarren esku ipint





Nortasunaren bila egindako irudiak

18


24

zientzia tzen




28

Kantaguneen eztanda: euskarazko abestientzat espazio berriak



40

Gorlizko erietxearen mendeurrenari errepasoa


Up to how mu
y hello to them for me
Spec sheeta dont
32gb internal right
Huh 64 internal
Funn
do that



Fake news: gezurraren kultura berria

Interneten sorreraren eta teknologia berrien gorakadaren ondorioz, *fake news*ek eta eduki faltsuek gora egin dute mundu osoan. Desinformazioaren zurrunbiloan bizi gara. Edonork sor dezake eduki iruzurti bat, faltsua edo aurrefabrikatutakoa, eta sare sozialek ahalbidetzen dute horiek mundu osora zabaltzea. Eduki faltsuak benetakoak baino askoz gehiago partekatzen dira, segundo gutxian. Egia-ostearen testuinguruan ematen da hori, zer den egia eta zer gezurra berdin zaigun garaian. Julen Orbegozo eta Alex Rayón adituakaz berba egin dugu fenomeno hori sakonean aztertzeko.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** IRUDIAK: **ARTEFAKTO** ▶



Gezurra zibilizazioa bezain zaharra da, eta historiako pertsonaia ezagun asko horretaz baliatu dira euren helburuak lortzeko. Izan ere, Makiavelo Errenazimentuko pentsalariak zioen bezala, gezurra egundoko arma politikoa da, «errazagoa da zurrumurruak sinestea egia baino». Baina, zer da egia eta zer gezurra? Egia kontzeptu labainkorra izan daiteke metafisikan: filosofo zaharrek uste zuten ez zegoela defendatzeko moduko egia absoluturik, ezta garai batean ontzat emandakoak ere. Grezia klasikoan, berbarako, sofistek uste zuten edozein egia zela defendagarria, egia hori sendoa eta oinarriduna ez zela jakin arren. Zientzian, berriz, egia aldakorra izan da beti, eta aurkikuntza berri batek ordura arte egiatzat hartzen zena deusezta dezake. XX. mendearen amaieran, postmodernismoren pizkundean, indarra hartzen joan da berriro ere egia absolutua ukatzearen filosofia. Ikuspegi hori darabiltenek ez dute ontzat hartzen gizakiaren eta bere historiaren egia objektiboa deskribatzeko kontakizun absolutua. Hala, jazo diren edo ez diren gertakariak egon daitezke, eta horiek denek gure ulertzeko moduan eta iritzian eragin dezakete, benetakoak zein asmatutakoak izan.

Politikagintzan maiz erabiltzen da gezurra, herritarrak manipulatu eta helburu zehatzak lortzeko. Baina ez bakarrik arlo horretan. Nahi ala ez, gezurren artean bizi gara, gure egunerokotasunaren parte dira, betidanik. Hala ere, gaur egun gezurrek indar eta eragin handiagoa dute gizartean, batez ere sare sozialek eta teknologia berriek horiek hauspotzen dituztelako ahalik eta hedapen handiena izan dezaten, besteak beste. Horren erakusgarri da, berbarako, Donald Trumpek AEBetako presidente izateko 2016an abiatu zuen hauteskunde-kanpaina. Politifact webgunearen arabera, Trumpek garai horretan egindako deklarazioen %70 ez ziren errealitatean oinarritzen, edo gezur handiak ziren. Eta horri denari esker dago dagoen lekuan, neurri handi batean. Albiste faltsuen unibertso modernoa sortu du, eta oso emaitza onak eman dizkio. Orain, Europako alderdi askok errezeta hori bereganatu dute, eta gezurra da euren estrategiaren osagai nagusia. Horren ondorioz, gizartea polarizatu da hein handi batean; hala, gutarrek esaten dutena ondo dagoela uste dugu, eta besteek diotena, aldiz, txarto. Egia-ostean (*post-truth*) bete-betean murgildu gara, zer den egia eta zer gezurra berdin duen garaian, hain zuzen ere.

Julen Orbegozo EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakasleak uste du egiak horrenbeste balio ez duen gizarte batean bizi garela: «Inoiz baino gehiago, egia erlatiboa da. Ia guztiari aurre egiten zaio, baieztapen handienei ere. Balio handiagoa dauka norberaren sinismenak indartzea, erratuta egon arren, egia ezagutzeak baino». Egia eta gezurraren arteko eztabaida bizia da gaur egun. Daborduko, mundua ez da bitarra, zuria ala beltza, egiazkoa ala gezurrezkoa. «Egia eta gezurra ez dira existitzen, eta hala ulertarazi nahi digunak ziria sartu nahi digu; egia eraikuntza kultural bat da».

GEZURREZKO ALBISTEEN UNIBERTSO MODERNOA. Egoera horretan zeresan handia du gaur egun aski ezaguna den *fake news* kontzeptuak. Berba hori 2017ko urteko hitz izendatu zuen Oxfordeko hiztegiak; ordutik, denon ahotan dago. Orokorrean, jendeak desinformazioagaz lotuta dauden ia elementu guztiak izendatzeko erabiltzen du berba hori, zaku berean sartuta dena. Betiko manipulaziotik hasita sare sozialetan bolo-bolo dabiltzan buloetara arte, den-denerako erabiltzen dute anglizismo hori. Hala ere, eta aldaketarik egin gabe, «gezurrezko albiste» modura itzuli behar dugu berba. Horiek ez dira eduki faltsuak dituzten albisteak, baizik eta albiste moduan argitaratzen diren gezurrezko istorioak, aurretik diseinatutako helburuak dituztenak. Azken finean, gezurrezkoa den zerbait erreal moduan aurkezten dituzten albisteak dira. Hala, *fake news* berba erabili beharrean, desinformazio-kontzeptuaren gainean jardutea gomendatzen du Europako Batzordeak, «batez ere horren erabilera franko politizatu delako, eta gezurrezko albisteak baino askoz modu gehiagotan manipulatu daitekeelako iritzi publikoa», gogoratu digu Orbegozok. Trumpek, berbarako, erabat kutsatu du *fake news*en erabilera. AEBetako presidenteak kazetaritza kritikoa eta zintzoa egiteko joera duten hedabideen aurka egiteko erabiltzen du hori; berarentzat, gezurrezko albiste bat haren gobernuaren kontrako edozein eduki da.

6
aldiz arinago hedatzen da sare sozialetan gezurrezko edukia benetakoa baino. Eduki deigarriak izan ohi dira horiek.

2017
urteko hitz izendatu zuen *fake news* Oxfordeko hiztegiak.

3.000
informazio-inpaktu inguru jasotzen ditugu egunean, hainbat autoreren arabera.

ZER DA ORDUAN BENETAN *FAKE NEWS* BAT? Desinformatzea eta engainatzea da gezurrezko albisteen helburu nagusia. Hala ere, fenomeno hori betidanik existitu da, komunikatzeko bitartekoak eta komunikatzeko grina ditugunetik. Iritzi publikoan eragiteko gezur bat kontatzea ez da gaurko kontua; berbarako, 64. urtean Erroma suntsitu zuen sutea baliatu omen zuen Neron enperadoreak ezbeharra kristauei leporatzeko eta haiek zirkuan hiltzeko. Erromako ohitura eta erlijio zaharrak zalantzan ipintzen hasiak ziren kristauak, eta inperioaren agintari gorenak horien kontra jotzeko aitzakia modura erabili ei zuen sutea. Hala ere, gertakari horren harira askotariko historiak zabaldu dira ordutik gaur egun arte: Neronek berak agindu zuela sutea, ezbehar baten ondorioz eragindakoa zela...

Baina, zer gertatu zen benetan? Ahoz ahokoetan, mitoetan, kondairetan eta norbaitek utzitako testigantza idatzietan eraiki ohi dugu ezagutzen dugun errealitatea, eta horiek egiatzat edo gezurtzat hartzen ditugu. Orain, aldiz, testuinguru teknologikoa eta kulturala aldatu denez gero, Orbegozok uste du gezurrezko albisteen disekzioa eta anatomia ezagutzea baino, garrantzitsuagoa dela inguruan daukan guztiari erreparatzea.



Sare sozialen bitartez lortzen duten hedapenari esker dute horrenbesteko arrakasta gaur egun gezurrezko albisteek eta edukiek orokorrean. Aro digital eta sozial batean bizi garenez gero, pertsona askok uste dute zerbaitek gizartean eragina izateko edukia gizarte-sareetatik zabaldu beharra dagoela. Horretarako bitarteko erabilienak Facebook eta Twitter izan ohi dira, gero eta jende gehiagok dituelako erreminta bi horiek informazio iturri modura. Alex Rayón Deustuko Unibertsitateko errektore-ordeak azaldu digunez, azken urteotan areagotu egin dira mota horretako albisteak zabaltzen dituzten webguneak. Gainera, horiek kudeatzen dituztenak adituak dira edukiok ahalik eta hedapen handiena izateko tekniketan. Arrakasta izateko edukiek zabalpen handia izan behar dute, «biralak izan behar dute». Horretarako, sare sozialen dinamika eta funtzionamendua menperatzea ezinbestekoa da, bide horiek erabilita ahalik eta jende gehiagorengana ailegatzeko.

EDUKI FALTSU MOTAK. First Draft elkartearen arabera, eduki faltsuak askotarikoak izan daitezke. Satira eta parodiak dira gezurrezko albiste ezagunenak, baita ere errazenak atzemateko. Horiek ez dute engainatzeko edo kalterik eragiteko asmorik, eta argi utzi ohi dute zabaltzen duten informazioa egiazkoa ez dela. Hala ere, ezkutuko helburuak dituzten edukiak ere aurki ditzakegu; horien artean eduki iruzurtiak daude, benetako iturri ofizialak erabili beharrean, egileak iturriak eta informazioak asmatzen dituenean. Lotura faltsuak egiten dituzten albisteak ere badaude, titularrak, irudiak eta bestelako informazio gehigarriek edukiagaz bat egiten ez dutenean. Edukiaren muina egiazkoa izan arren, testuingurua asmatua duten albisteak ere aurki daitezke, baita manipulatutako edukiak dituztenak ere. Azken horietan, berbarako, argazkiak desitxuratu edo moldatuta argitaratzen diren eduki asko aurki daiteke sarean. Azkenik, erabat asmatutako albiste edo edukiak daude, kontatzen den berria guztiz faltsua denean eta engainatzeko eta kaltetzeko diseinatuta daudenak, alegia. Atal horretan sartzen dira *fake news* edo gezurrezko albisteak.

Adibideak sarean

- **Gezurrezko albisteak sortzen dituzten medioak Espainian: Alerta Digital, Mediterráneo Digital, La Tribuna de Cartagena eta Caso Aislado, besteak beste.**
- **Gezurrezko albisteak eta eduki faltsuak harrapatzeko plataformak: Malditobulo.es.**

SARE SOZIALEN ERAGINA. Sare sozialen agerraldiagaz batera, erraztu egin da iruzurtiak izan daitezkeen edukiak partekatzea eta horiek munduko leku denetara ailegatu ahal izatea. Daborduko amaitu egin da informazioaren produktorearen eta kontsumitzailearen dikotomia; honezkero, edonork publika dezake informazio bat interneten, kazetaritzarenak izan daitezkeen erremintak baliatuta. Hala, pertsona anonimo batek edozein informazio publika dezake bere blogean edo sare sozialetan, eta lortutako hedapenaren ondorioz, hedabideek ere horren isla izan dezakete.

Facebook, Twitter eta halako plataformek darabilten algoritmoek erabiltzailearentzat adierazgarriak izan daitezkeen edukiak erakusten dituzte, norberak jasotzen duen informazioa nolabait baldintzatuta eta iragazita. Horrez gainera, sare sozialek euren plataformetan publikatutako edukiak horiek duten hedapenaren eta jasotzen dituzten interakzioen arabera zabaltzen dituzte erabiltzaileen artean. Hala, zenbat eta atsegite eta partekatze gehiago, orduan eta hedapen eta adierazgarritasun handiagoa izango du eduki batek plataforma horietan. Egoera horrek guda-zelai berria sortu du gizartean, politikagintzan batez ere.

Askoan berba egin da errusiarren injerentziaz AEBtako 2016ko hauteskunde presidentzialetan, Ingalaterrako Brexitaren arrakastan edo Kataluniako independentzia-prozesuan, besteak beste. AEBetako Inteligentzia Elkarteak jomugan du Errusia, Kremlineko agintariek askotariko herrialdeetako iritzi publikoan eragiteko estrategia birtuala darabiltelakoan. Amerikarren arabera, errusiarrek robotak erabiltzen dituzte eduki faltsuak hainbat sare sozialetatik etengabe zabaltzeko eta jendearen pentsamoldean, ikuspegian eta, azken finean, iritzi publikoan eragiteko. *Framing* edo enkoadratzearen teorian oinarritzen da estrategia hori. Orbegozok azaltzen duenez, gezurrezko albiste edo edukiak zirkulazioan ipintzea inportantea da munduan gertatzen diren gauzak enkoadratzeko edo gizartean gertatzen ari diren gauzak zer-zelakoak diren ulertzeko: «Tantaz tanta, gure munduaren ikuskera baldintzatzeko sortu daitezke gezurrezko albisteak». Adibide moduan, espainiar Estatuan azkenaldian darabilten albiste faltsu gehienak immigrazioari buruzkoak direla ohartarazi du Orbegozok. Horiek ez dute alderdi bat edo bestea jomugan; helburu nagusia da jendearengan ikuskera zehatz bat sortzea fenomeno zehatz baten inguruan. EHUko adituak ipinitako adibidearen kasuan, pertsona migratzaileen uholde bart dagoela ikusaraztea da helburua, besteak beste.

GEZURREZKO ALBISTEEN HELBURU ILUNAK, AGERIAN. Ikus daitekeenez, gezurrezko albisteen edo edukien atzean dauden helburuak ideologikoak eta politikoak izan daitezke. Komunikazio politikoan betidanik heldu izan zaio emozioari eta manipulazioari. Horrez gainera, erdibideko egiak edo, zuzenean, gezurrak baliatu izan dira erreminta estrategiko modura. Horren adibidea dugu lehen aipatutako Donald Trumpen hauteskunde-kanpaina. Trumpek sare sozialak erabili zituen askotariko gezurrak hedatzeko eta bere aurkaria zen Hillary Clintonen irudia zikintzeko. Erraza zen baieztapen horiek gezurtatzea, baina informazio hori arinegi hedatu zen gizartearen zirrikitu guztietara, sare sozialei esker, berriro ere.

Helburu ekonomikoa ere izan dezakete gezurrezko albisteek. Alex Rayón adituak azaldu digunez, eredu ekonomikoaren paradigman sartuta dauden hedabideek albiste sentsazionalistak eta faltsuak argitaratzen dituzte euren webguneetan jendea horietara erakartzeko asmoz. Izan ere, webgune horien negozioaren % 100 publizitatea da, eta horiek jasotako bisiten

Zelan identifikatu *fake news* bat



Ez fidatu handiak diren eta maiuskulan dauden titularrez

Mota horretako titularrak emozioei eragiteko diseinatuta daude, baita interesa eragiteko sare sozialetan ere. Izan ere, horiek nabarmendu egiten dira sareen aktualizazioetan.



Nor da egilea?

Egilea ezezaguna egiten bazaigu, lehenik eta behin erreala den baieztatu beharko dugu. Hedabide batek zabaldu badu informazioa, horren inguruko informazioa bilatu beharko dugu. Normalean, albiste faltsuak zabaltzen dituzten webguneek ez dute horri buruzko inolako informaziorik ematen.




Estekak eta informazio-iturriak arakatu

Albisteek dituzten informazio-iturriak eta estekak baieztatu beharra dago. Azken horiek funtzionatzen ez badute, edukia iruzurtia izan daiteke eta ez genuke hori konpartu behar.



Publikazio-data egiaztatu

Badira albiste zaharrak publikatzen dituzten hedabideak. Hala ere, askotan horrek ez du esan gura gaur egungo gertakizunakaz zerikusirik daukatenik.




Adi URL helbideei

Askotan, ezagunak diren webguneen antzeko helbideak erabiltzen dituzte albiste faltsuak zabaltzen dituztenek. Irakurlea nahasteko eta zilegitasuna emateko egiten dute hori iruzurtiek.



Iturri lokala bilatu

Gertakariak jazo diren lekuan egon den pertsona bat kontsultatu datuak egiaztatzeko edo gezurtatzeko.



Argazkien alderantzizko bilaketa egin

Hedabide askok testuingurutik kanpo dauden argazkiak publikatzen dituzte iruzur egiteko. Googlen irudi horien bilaketa egin daiteke, aldez aurretik hori publikatua izan den eta non jakiteko.



Broma bat da?

Albistea bera sinesgaitza edo oso bitxia bada, baliteke broma edo satira bat izatea. Eduki hori zabaldu duen webgunea ikertu, baita bere egilea ere mota horretako edukiak normalean partekatzen dituen jakiteko.

arabera lortzen dute dirua; zenbat eta bisita gehiago, orduan eta etekin handiagoa.

Horrez gainera, Rayónek hirugarren helburu bat egozten die eduki faltsuei edo iruzurtiei. Dioenez, horiez berba gutxi egiten den arren, badaude, sinpleki kaosa sortu guran, beldurra sortzeko edukiak zabaltzen eta publikatzen dituzten pertsonak. Atentatuak eta ezbeharrak jazotzen direnean zabaldu ohi dira eduki horiek, Twitter bidez bereziki. Berbarako, Bartzelonako 2017ko erasoen ondoren, sare sozialetan bolo-bolo ibili ziren Bilbon, Donostian eta beste hainbat hiritan antzeko atentatuak egongo zirelako zurrumurruak. Halakoetan, larrialdi-egoeretan, sare sozialetan zabaltzen den informazio faltsua identifikatu eta gezurtatzen du egunez egun Vost boluntario digitalen taldeak. Azaldu dutenez, arriskua eragin edo kaltea sor dezakeen informazioa bada, benetako informazioagaz erantzuten dute. Albiste bat gezurra dela atzematen badute, aldiz, larrialdietako arduradunei ematen diete horren berri, eta gezurra dela baieztatuz gero, sare sozialetan joan-etorri handia duen informazioa den begiratzen dute: nondik sortu den, jarraitzaileen kopurua, zenbat bider konpartitu den, noiz sortu den kontua... «Sare sozialetan indar handia hartzen ari den gezurra bada, berehala erantzuten dugu, informazioa gezurtatuta», azaltzen dute. Euren goiburua hau da: «Informazio bat benetakoa ote den ez badakizu, ez bertxiotu».

ZELAN EGIN AURRE FALTSUAK DIREN EDUKIEI? Julen Orbegozo EHUko irakasleak uste du garai batean askoz ere errazagoa zela eduki faltsuak identifikatzea, hala nola manipulazioak egiten zirenean argazkietan. Gaur egun, ordea, nekezago izaten zaigu gezurrezko albiste bat edo eduki faltsu bat identifikatzea. Alde batetik, askoz ere informazio eta albiste gehiago dago zirkulazioan. Interneten sorreraren ondorioz, gainera, komunikabideek gora egin dute eta webgune informatiboak biderkatu egin dira azkenengo urteetan. Hala ere, harrigarria da hori, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz kazetaritza izan zelako lanbiderik kolpatuenetako bat, Madrilgo Kazetarien Elkargoaren arabera. «Zerbaitek ez du bat egiten. Kazetari gutxiago dago, baina komunikabide gehiago», ondorioztatu du adituak.

Teknologia ere hobetu egin da azken urteotan; gailuak merkatu egin dira eta edozer gauza egiteko gai gara denok horiei esker. Gainera, gauza batean aditua izan edo ez, interneten dagoen informazioari esker gauza asko egiten ikas dezakegu. Hala, gaur egun edonor da gai mugikorra hartu eta bideoz gertakari bat grabatzeko eta sare sozialetatik partekatzeko zuzen-zuzenean. Are gehiago, edonork har dezake webgune bat, hura moldatu eta eduki bat trukatzeko benetan bertan publikatu dena desitxuratzeko. Gura beste aukera dago informatzeko gaur egun, baita desinformatzeko ere.

Komunikabideen eta eduki-sortzaileen gorakada horrek informazio-kopurua handitzea eragin du. «Infoxikatuta» bizi gara. Egunez egun, orduz ordu jasotzen dugun estimulu-kopurua etengabekoa da. «Arretaren borrokaren gizartean bizi gara. Nork lortuko du gure arreta bereganatzea?», galdetzen du Orbegozok. Horren ondorioz, albiste eta edukien ekoizleek ahalik eta produktu erakargarriena egiten saiatzen dira, engainua erabilita bada ere. Berbarako, ohiko bilakatu da albisteakaz bat etortzen ez diren titularrak erabiltzea jendea horietara erakartzeko asmoz, amuak balira bezala.

INFORMAZIOA KONTSUMITZEKO MODUAK. Testuinguru horretan, EHUko adituak azaldu digunez, teoria zientifikoek diote bi modutara jasotzen dugula pertsonok informazioa: modu automatiko eta azalekoan; edo modu kontzentratu batean. Gaur egun gauza gehiago egiten dugu, «baina arreta gutxiagorekin, tentu gutxiagorekin, sakontasun gutxiagorekin. Hutsaltasunaren gizartean bizi gara». Horrez gainera, adituak azaldu digu azaleko kontsumora jotzen dugula are eta estresatuago bizi garelako, «infoxikatuago». Era berean, pertsonok gure usteak edo sinesmenak berrindartzeko joera dugula diosku EHUkoak: «Gure zirkulua sortuko dugu eta gure sinismenen aldeko informazioari kontzientziaren ateak irekiko dizkiogu, eta aurkakoei erabat itxi. Modu batera edo bestera saiatuko naiz justifikazio bat topatzen edo zirrikitu bat topatzen nire sinismenen kontrako ideiak ez sinisteko».

*Fake news*ak gezurtatzen ikasi...

Gezurrezko albiste bat edo desinformazioa atzematen dugunean, hainbat puntu izan behar ditugu kontuan horiek gezurtatzeko; Poynter Institutuak Alexios Mantzarlisen hurrengo gomendioak argitaratu zituen 2015ean:

Ez partekatu
Faltsua den informazio bat aurkitzen dugunean, inola ere ez dugu konpartitu behar gure komunitatean.

Bilaketa pertsonalizatuak
Saia gaitezen konfiantzazko iturrietatik informazioa bilatzen. Bilaketa bat iragazteak egia lehenago aurkitzea ahalbidetuko digu.

Irudiak egiaztatu
Google bilatzaileak askotariko irudiak eta argazkiak egiaztatzeko aukera ematen digu. Hala, jakin ahal izango dugu aldez aurretik hori beste inon argitaratu den edo ez.

Adituakaz berba egin
Zerbaiten inguruan zalantzak izanez gero, gertakari horri lotutako adituren bategaz jar gaitezke harremanetan edozelako zalantzak argitzeko.

Lekukoen testigantzak
Inor ezagutzen ez badugu, Twitterrek geolokalizazio-zerbitzua eskaintzen du. Hala, leku zehatz bateko lekukoak aurki ditzakegu erreminta horren bitartez, baita eurakaz kontaktuan jarri ere. Modu honetan, askotariko detaileak konfirma ditzakegu.

«Egiaztatze-kutxa»
First Draft elkarteak informazioak egiaztatzeko hainbat erreminta bildu ditu bere webgunean. Ingelesez dago, eta Maldito Bulok gaztelerara itzuli du. Horien bitartez, askotariko datuak gezurtatu edo egiaztatu ahal izango ditugu:
- **https://firstdraftnews.org/verification-toolbox/**
- **https://maldita.es/herramientas-de-verificacion/**

KONPONBIDE BILA, EZ DA BIDE ERRAZA. Erakunde publiko eta pribatu askok gomendioak eman dituzte albiste faltsuak detektatzeko; hala ere, kulturalki landu beharreko zerbait dela uste dute adituek, «jendea heztea da gakoa». Horrez gainera, Orbegozok jakinarazi digunez, azkenaldian algoritmoak diseinatu dira gezurrezko albisteak detektatzeko. Horren harira, Sherpa Adimen Artifizialeko Erandioko enpresak lanean dihardu *fake news*ei aurre egiteko. Xabi Uribe-Etxebarria konpainia horretako zuzendariak iragarri digunez, 2019ko urtearen hasieran Sherpa News izeneko doako aplikazioa kaleratu zuten, erabiltzailearen gustuen eta interesen arabera eduki bat edo beste eskaintzen duena: «Gai gara, %97ko fidagarritasunarekin, erabiltzailearentzat interesgarria den eduki bat eskaintzeko». Inteligentzia artifizialeko askotariko algoritmoak erabili dituzte emaitza horiek lortzeko, «norberaren erabileraren arabera aplikazioak ikasi eta emaitzak hobetzen ditu». Hurrengo erronka, ordea, *fake news*ei aurre egitea dela iragarri dute Sherpakoek. Horretarako, algoritmo bereziak garatzen ari dira orain eta urtearen amaierarako prest izatea aurreikusten dute. «Teknologia lagungarria izan daiteke gezurrezko albisteak detektatzeko zereginean. Teknologiek dakartzaten aukerak baliatu behar ditugu horretarako», azaldu digu Uribe-Etxebarriak.

***FAKE NEWS*AK EUSKAL HERRIAN.** Julen Orbegozoren arabera, gezurrezko albisteak ez dira beste leku batzuetan bezala garatu Euskal Herrian. Horren ordez, kasu honetan eduki faltsuen inguruan berba egin beharko genukeela uste du adituak. «Komunikabide «ustelik» ez omen dago Euskal Herrian; bai, ordea, sentsazionalismorako eta esajeraziorako joera izan dezaketenak, internetekin batera sortu direnak, batez ere. Dena den, bertoko hartzaileak badu horien joera zein den jakiteko baliabide bat: ezagutzen dut komunikabidea? Hau da, *El Correo*, *Deia*, Radio Euskadi, *Naiz*, *Berria*, HIRUKA, *Anboto*... da albistearen egilea? Hala ez bada... jada hasten naiz errezelatzen. Nahiko ohituta gaude komunikabidea identifikatzen». Hori da gakoetako bat; albistearen sortzailea nor den jakin ezean, ez fidatu asko.

Eduki faltsuak sortu dira inguruotan, bai, baina ez dira horrenbeste hedatu. «Nahiko nabarmen harrapatu da gezurrezkoak direla, eta jendeak gehiago zabaldu du umorearen norabidetik», azaldu digu Orbegozok. Hala, orokorrean Euskal Herriko gizartea egia eta gezurra ezberdintzeko prestatuta dagoela uste du adituak. Era berean, komunikabideen jokabidea goraipatu du EHUko irakasleak: «Hemen, normalean, komunikabideek ez dute eduki faltsua albiste bihurtzen. Hau da, ez dira korrika joaten albiste bat egitera eduki faltsu batetik». Hala ere, Alex Rayón Deustuko Unibertsitateko errektore-ordeak gogoratu duenez, mota horretako kasuak ere egon dira hemen, hala nola Hondarribian suge pozoitsu arriskutsu bat atzeman ei zutenekoa. Kasu horretan, emakume batek ohartarazi zuen Gaboneko (Afrika) sugegorri bat ikusi zuela Amuteko paduran; hala ere, gerora aitortu zuen salaketa hori faltsua zela. Bitartean, hedabide askok horren berri eman zuten, salaketari sinesgarritasun osoa emanez hasiera batean. Ondoren, benetako egoera zein izan zen ikusi ondoren, denek zuzendu zuten informazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen iritziz (%61), informazio faltsuak edo *fake news*ak arazo larria dira demokraziarentzat, urtarrilean Prospekzio Soziologikoaren Kabineteko azterlan batek emandako datuen arabera. Hala, Europar Batasuneko gainerako biztanleak (%45) baino kezka handiagoa erakusten dute euskal herritarrek. Horren aurrean, Orbegozok eta Rayónek argi dute kazetariok dugun gaur egungo erronka nagusietako bat dela bidean galdutako nolabaiteko prestigioa berreskuratzea, eduki fidagarri eta sendoak erabilita. «AEBetan gertatu dena geldiarazi behar dugu. Ezin dugu onartu hedabideak polarizatuta egotea, batzuek egia eta beste batzuek gezurra kontatzen dutela sinestea, alegia. Kazetaritza ona, zorrotza eta zalantzarik gabekoa egin beharra dago», amaitu du Rayónek. ◂

Iritzia **Gure Esku Dago**



Irabazi bai, baina zertarako?

ZELAI NIKOLAS EZKURDIA

Hauteskundearen biharamuneko alderdien adierazpenen arabera, den-denek irabazi dute. EAJ-PNVk nagusitasuna du EAEko erakundeetan. EH Bildu bigarren indar politiko nagusia da Hego Euskal Herrian. Elkarrekin-Podemosek ezkerreko alderdi gisa bere oinarrizko zorua aurkitu omen du eta hainbat udaletan gakoa izan daiteke EH Bildurekin batera gobernua lortzeko. PSE-EEk bere ohiko udaletan lortu du gobernatzen jarraitzea eta EAJ-PNVri behar duen kasuetan gehiengo instituzionala eskaintzeko moduan dago. PPren emaitzak txarrak izan dira. Nafarroan aukera dago azken lau urteetako aldaketa egonkortzeko, PSN ez bada eskumarekin lerratzen. Zalantzarik gabe, agertoki politiko berri batean gaude Euskal Herrian.

Baina, alderdiek zertarako erabiliko dituzte irabazitako posizio politikoak eta botere-esparruak? Ba al dugu herri gisa, erabakitzen duen komunitate politiko gisa alegia (horretarako baititugu gure erakundeak) proiekturik, edo bakoitzak ordezkatzen dituen interesak kudeatzea izango dute xede? Prest gaude lortutako botere esparru horretatik proiektu partekatu bat lantzeko, gizarte-kohesioan sakonduko duena, abiadura biziko mundu honetan nor izateko aukera eskainiko diguna?

Eskoziak eta Kataluniak, erreferendum bidez, munduari esan diote beren etorkizuna demokratikoki erabaki nahi dutela, eta bigarren erreferenduma egiteko aukera lantzen ari dira. Erabakitzen dakiten herrien estatusa irabazten ari dira. Euskadik, País Vascok, Pays Basquek, Basque Countryk, Euskal Herriak, euskal izaera aldarrikatzen du estatuen aurrean eta munduan, baina gure estatus politikoa erreferendum bidez erabakitzeko gaitasuna ere behar dugu, eta hori izango da Gure Eskuren erronka berria hemendik aurrera.

Iritzia **Ez da giro**



Euskal oasia

GERMAN KORTABARRIA IGARTUA

Oraintsuko hauteskundeen ondoren oso erreakzio desberdinak izan dituzte mundu abertzaleko familia politiko nagusiek: irabaztera ohitutakoaren euforia neurritsua eskuinak (antza, periferiako zartadak leunduta iristen dira Abandora); emaitzak hobetu arren, sari potolorik gabe geratu denaren dezepzioa ezkerrak.

Dezepzioa ulergarria bada ere, hauteskundeotan erakutsitako goranzko joerak eraldaketaren alde lanean jarraitzeko bultzada eman beharko lioke ezkerrari, instituzioetan (batik bat herritarrengandik hurbilenetan) nola jendartean jorratu beharreko alor ugarietan.

Egia da eginkizun nekeza eta esker txarrekoa ere gertatzen dela «euskal oasiaren» egonkortasun instituzionala eta harmonia soziala orbandu dezakeen gatazka txikiena ere azaleratzea. Egonkortasuna da instituzioek bete eta betearazi beharreko mandamentu nagusia; hots (J. Hernandez Zubizarretaren hitzetan) «piramide juridikoaren erpinean kapitalaren, eliteen eta jabego pribatuaren interesak jartzea; gehiengo sozialen eskubideak, mobilizazioa eta greba, berriz, ezegonkortasun iturritzat hartzen dira».

Eraldaketa egitekotan, interes horien menpeko diren instituzioen abarotik kanpo eta, hein handian, haien aurka egin beharko da. Bada eremu zabala (sindikalismoan, ekologian, feminismoan, integrazioaren aldeko mugimenduetan, pentsamendu kritikoan...), non kidetasunak bilatu, aliantzak saretu, harreman-kodeak adostu. Euskal oasiaren saltzaileen arrakastak ez gaitzala desanimatu. Joseba Sarrionaindiak «Habanako gaukarian» aipatzen du José Martík eman zion erantzuna Espainiaren menpeko Kuban giroa normala eta lasaia zela argudiatu zion lagunari: «Zu eguratsera begira zaude; ni lur azpiaz ari naiz». Jabaltasunez tindatutako geruzaren azpian bilatu behar ditugu, gurean ere, eraldaketarako arrazoiak eta indarrak.

Puntua eta kontrapuntua ***Fake news*ak eta eduki faltsuak**

Desinformazioa



Desinformazioa, informazioa... zer da egia ta zer da asmazioa? Tresna batek emango diogu bisioa baina non geratzen da gure juizioa, berezko algoritmo den intuizioa?

ARRATE ILLARO ETXEBARRIA
Getxo

Kazetariak beti lanerako prestu baina inoiz gezurrak zaizkigu aurkeztu. Hedatzen dira ahoz eta eskuz esku; irakurtzerakoan albiste zein testu, ez dezagun dioten guztia sinestu!

INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Leioa



ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Lehen/Orain **Gorliz 1918**



ITURRIA: «GORLIZ. HERRI BATEN ALDIUNEAK» (DEIA EGUNKARIAK ARGITARATUA)

Erretratua **Marina Alcalde Sainz** Tango-dantzaria

Hamasei urte daroatza tangoaren munduan buru-belarri Marina Alcaldek, Bilbon jaio zen urduliztarrak. 2018an Munduko Tango Txapelketaren finalera ailegatu zen.

TESTUA: **KERMAN SANTIAGO ALKORTA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Bizitza osoa darama Marina Alcaldek dantzatzen. Estilo bat baino gehiago landu du, baina 21 urtegaz tangoa aukeratu zuen. «Onura ekarri zidan tangoa dantzatzen hasteak», esan digu. Orain dela lau urte munduko txapelketara aurkeztu zen lehenengo aldiz, Diego Quispe argentinarragaz. «2015ean nire bizitzako eta dantzatzeko kidea denagaz lanean hasi nintzen, baita mundialera ailegatu ere. Ordutik, urtero jokatu dugu Munduko Tango Txapelketa», diosku. Joan den urtekoan finalera ailegatu ziren, eta zortzigarren postua eskuratu zuten.

> «Gauza asko utzi behar izan ditut bidean, baina ez naiz batere damutzen egin dudan bideaz»

Dantzaz bizi daitekeen edo ez galdetu diogunean argi esan digu baietz Alcaldek: «Gauza asko utzi behar izan ditut bidean, baina ez naiz batere damutzen egindako bideaz. Lehen, estetikaren alorrean egiten nuen lan, eta oso pozik nengoen, baina tangoa dantzatzea askoz atseginago dut».

Urdulizen Abrazándonos Studio tango-eskola du Alcaldek, eta eskola partikularrak ere ematen ditu Algortan, Barakaldon eta Bilbon, besteak beste. Begiradan hasi, besarkadan jarraitu eta dantzan hedatzen den elkartze horrek zoriontsu egiten duela dio: «Urte luzez borrokatu dugu, baina merezi izan du honetaz bizitzeak». ◀





Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Nola eman behar dira orduak euskaraz?

Orduak adierazteko sistemek bide bat baino gehiago erakutsi dute euskaraz, eta sarritan sortu izan dira zalantzak: zeri erantsi behar zaio artikulua? Eta plural-marka? Hamarrak eta hogeitan ala hamarrak eta hogeian? Ordu bata eta hamar da ala ordu batak eta hamar? Horiek guztiak ikusiko ditugu atal honetan.

Euskaltzaindia beti oinarritu izan da erabileran eta tradizioan arauak sortzeko. Hortaz, azter dezagun, lehenengo eta behin, zein izan den orduen inguruan literaturan egon den erabilera; eta ondoren ezagutuko dugu Euskaltzaindiaren erabakia.

Orduaren berri emateko, tradizioa eta literaturako erabilera kontuan hartuz, orduaren zenbakia ematen da, plural-markarekin. Adibidez: [...] *bederatziak aldian juan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera*; (Ama Birjiñaren Agertziak, Goñi, F.). Ordu bata-ren kasuan, baina, Bizkaialdean «ordu batak dira» nagusitzen ari dela ematen du; Erdialdean eta Ekialdean, aldiz, ordu bata/oren bata da (kontuan hartu erdaraz ere hainbat aldaera daudela: Amerikako hizkera askotan, *¿qué hora es?* barik *¿qué horas son?* galdetzen da; Bizkaialdeko gaztelanian, *son la una* esaten da, euskaraz bezala...).

Bestalde, erdia adierazteko Hegoaldean artikulua eta plural-marka «erdi» osagaiari eransten zaizkio; askotan «t'» erabiliz «eta»-ren ordez. Hala ere, kontuan hartu euskara baturako «eta» osorik idaztea aukeratu dela. Hona hemen adibide bat: *Hamar eta erdiak direla esan bahidan, berdin-berdin sinistuko nian* (Bi ahizpak, Lizardi).

Ordu osotik hamabost minutu igaro dela esateko, «eta laurden» egitura erabiltzen dugu. Dena den, kasu horretan ere izaten da zalantzarik; nagusiena artikulua non idatzi: orduari eta laurdenari, biei, erantsi ala laurdenari bakarrik? Bada, Hegoaldeko gure idazleek, erdirekin bezalaxe, azkenean bakarrik ematen dute plural marka: *Ilunabarrean, berriz, 8 eta laurdenetatik 9 t'erdietara, jai eta aste* (Mitxelena). Egungo idazleen joera, berriz, «bostak eta laurden»-en eredukoa da: *Hirurak eta laurden dira, gero eta aukera gutxiago dauzkagu, honezkero itxi dituzte leku asko*... (Urregilearen orduak, Aristi, P.).

Hurrengo ordurako zenbat falta den adierazteko, gehienetan «gutxi» (edo aldaerak: «guti», «gitxi»...) aurki daiteke: *Eguardiko amabiak laurden gutxitan illargitik praille bat botako baluteke, eguardiko amabi-amabietan erretore etxean bazkari-zai egongo litzake* (Pernando Amezketarra, Mujika, G.). *Alabaina, gutxiago ere erabiltzen da, batez ere Hegoaldean: Goizeko bostak laurden gutxiagotan, lo gaizki eginda, ateratzen nuan maleta illunpetatik*... (Aprika-ko basamortuan, Anabitarte).



Garai berrietara egokitzen

Egun, sistema berriak ezarri dira orduak adierazteko, tresna elektroniko, pantaila eta abarrek eragindako aldaketen ondorioz. Nola eman hori euskaraz, horren inguruko tradiziorik ez bada?

Komunztadurari dagokionez, ordu bata da esango dugu; singularrean, alegia. Gainerakoetan, jakina, pluralean egingo da: hirurak dira, zortziak dira... Halere, zalantzak ordu bata gehi «x minutu» adieraztean sortzen zaizkigu, hau da, ordu bata eta hogei da ala ordu bata eta hogei dira? Tamalez, tradizioan ez da lekukotasunik ikusten, eta gaurko idazleen artean ere ez dugu adibide asko aurkitu: *Ordu bata t'erdixak baño eztozak* (Zirikadak, J. San Martin «Otsalar»).

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIA. Egun sistema berriak ezarri dira tresna elektroniko, pantaila eta abarrek eragindako aldaketen ondorioz. Nola eman hori euskaraz, horren inguruko tradiziorik ez bada? Hori guztia kontuan hartuta, Euskaltzaindiak erabakia hartu zuen. Honatx:

Orduak honela ematen dira: ordu bata, zazpiak... Postposizioekin, aldiz: ordu batean, zazpietan... Erdiak adierazteko ordu bat eta erdiak, zazpi eta erdiak... moldea erabiliko da. Laurdenak emateko ordu bat eta laurdenak/ordu bata eta laurden forma biak onartu ditu. Minutuak singularrean emango dira, eta gutxi/gutxiago bi moduak onartuko dira: bostak bost gutxi/gutxiago, laurak eta hogeian... Azkenik, zifretan ematen direnean, bi punturekin bereiziko dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili beharko dira: 00:12, 12:10, 09:25... Kasu-markak jartzean, orduei plurala erantsi behar zaie, eta minutuei singularra: 15:00etan, 15:05ean, 15:30ean. Irakurtzeko orduan hobe da, nolanahi ere, honela irakurtzea: hiruretan, hirurak eta bostean... Egitarau, kartel eta horrelakoetan, ordea, ez dago eragozpenik erdiko bidea hartzeko: arratsaldeko 5etan, iluntzeko 8etatik 11k arte... ◂





Gatz-ozpinetan Izei Azkue

Ezagutzen al dituzue jengibrearen propietateak?

Jengibrea elikagai gisa erabiltzeaz aparte medikuntzan ere erabili izan da historian zehar, Asiako herrialdeetan batez ere. Jatorria kontinente horren hegoaldeko oihanetan izanda ere, gaur egun mundu osoan lantzen da; horri esker, eskuragarri daukagu edozein fruta-denda zein erostetxetan.

Indiako esaera zahar batek honako hau dio: «Gauza on guztiak jengibrean aurkitzen dira». Esaldi horrek erakusten du zein garrantzitsua izan den landare-sustrai hori Asiako herrialde ugaritako medikuntza tradizionalean, elikagai horrek osasunerako dituen onurengatik.

JENGIBREAREN PROPIETATE MEDIZINALAK. Plaketa-agregazioa eragotzi egiten du, eta hala, gaixotasun kardiobaskularrak murriztu eta odolaren zirkulazioa hobetzen du. Era berean, gingerola, bere osagai aktiboa eta bere zapore minaren erantzulea, hanturaren aurkako agente garrantzitsua da. Baieztatu egin da propietate horiei esker kolon-minbizia saihestu egiten duela jengibreak. Bero-ahalmen berezia ere badu: izerdia eragiten du, eta gripe eta sukarraren aurrea lagungarria da. Zorabioei lotutako sintomak txikitu egiten ditu eta haurdunaldiko goragaleak saihesteko ere baliagarria da. Guzti horrez gainera, arnasatserako ere erabiltzen da; teknika berezi baten bidez jengibrea ozpindu egiten da arnasatsa kentzeko. Jengibrea normalki kontsumitzea oso gomendagarria da, baita hesteko bakterio eta mikroorganismoak kentzeko ere. Edozelan, jengibrea neurrigabekeriaz kontsumitzea osasunerako kaltegarria izan daiteke, bai urdailerako baita arnas aparaturako ere.

JENGIBREAREN ERABILERA SUKALDARITZAN. Jengibrea asko erabiltzen da Asian, Txinan gehienbat; hala ere, mundu osora zabaldu egin da, aipatu ditudan ezaugarri bereziengatik. Nire kasuan, eta gomendio modura, esan dezaket edozein krema egitean jengibre birrindua botatzeak ukitu berezia zein gozoa emango diola, hala nola porrusaldan edo kuia-krema batean, esate baterako. Curryak egiteko ere oso gomendagarria da; nahasketa horren oinarri modura jengibre- eta berakatz-eskukada bat bota daiteke, olio apur batekin, noski. Curryak egiteko ezinbestekoa egiten zait jengibrea, bai azaldu dudan bezala oinarri moduan egitea zein curryaren nahasketa lehorraren artean. Entsaladetan ere, birrinduta botatzeak ukitu mina ematen dio mokaduari.



Osagaiak

Jengibrezko krema

Litro bat esne, 100 gramo azukre, jengibre sustrai-zatia, 3 arrautza eta 45 gramo arto-irin.

Limazko esne-gain harrotua

Litro bat esne-gaina eta lima.

Urazukrea

Limaren azala, jengibre-zatia, 400 gramo azukre eta 400 mililitro ur.

Bizkotxoa

4 arrautza, 120 gramo azukre eta 120 gramo irina ahul.

Ikusi duzuenez, jengibreak aukera ugari eskaintzen ditu sukaldaritzan. Janari tradizionalak alda ditzakegu gure egunerokotasun gastronomikoetatik apur bat aldentzeko eta gauza berriak probatzeko. Hala, Euskal Herrian tradiziozkoa den azkenburuko bat hartu eta moldaketa bat egingo diot jengibrea erabilita: lima eta jengibrezko goxua.

LIMA ETA JENGIBREZKO GOXUA. Hasteko, esnearen %75 jengibreagaz egosiko dugu, horiekaz infusioa egiteko. Bitartean, gainontzeko osagaiak soberan dagoen esneagaz irabiatuko ditugu. Infusioa eginda dagoenean, jengibre-zatia atera eta gainontzeko nahasketa-esnera gehituko dugu. Hori dena sutan izango dugu, dena irakin arte eta nahi dugun gorputza eduki arte. Ondoren, krema hozten utziko dugu.

Limazko esne-gain harrotua egiteko, infusioa egingo dugu esne-gainagaz eta lima-azalagaz. Ondoren, hozkailuan hozten utziko dugu hamabi orduz; horrek oso hotz egon behar du gerora haga bategaz harrotu ahal izateko.

Bustitzeko urazukrea egitea oso erraza da: osagai denak kazola batean ipini eta ura irakiten ipini azukrea urtu arte. Ondoren, hozten utziko dugu. Bizkotxoa egiteko, lau arrautza azukreagaz batera harrotuko ditugu bolumena hirukoiztu arte. Ondoren, irina bota eta nahastuko dugu kontu handiz, lehen sortutako burbuilak apurtu ez daitezen. Ondoren, molde batean sartu eta laberatuko dugu, 180 gradutan, eginda dagoen arte.

Den-dena hotz eta prest dagoenean, bizkotxoa apurtu eta urazukrean bustiko dugu. Hori oinarri modura ipiniko dugu edalontzi batean. Ondoren, esne-gain harrotua bizkotxoaren gainean jarriko dugu, den-dena estaliz. Segituan prozesu berdina egingo dugu jengibrezko kremagaz, esne-gainaren gainean. Azkenik, azukrea gehituko dugu denaren gainean, suagaz azken hori karamelizatzeko. ◂



Historiaren ganbara Jon Ormaza

Abra itsasoaren eragina Getxoko kostaldean



Getxoko jatorriez aritu nintzen lehenengo artikuluan eta Portu Zaharraren historiaz bigarrenean. Baina, aurreko atalak ezin dira guztiz ulertu Getxoko udalerriko lurrak bustitzen dituzten urei buruz ezer esan gabe. Kantauri itsasoaz ari naiz eta nola ez, Abrako itsasoaz.

Abrako itsasoari buruz ditugun aipamen historiko gehienak bere mugetako herrien dokumentuetan aurki ditzakegu. Hala ere, horrek gaur egun bizi duen egoerara heldu arte egin duen ibilbidea zertxobait argitzea beharrezkoa da. Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieran Bilboko komertzioaren garrantzia handituz joan zen, itsaskomertzioari esker, hein handi batean, besteak beste. Hala ere, horrek hainbat oztopo eta behar izan zituen bere garapenerako, hala nola itsasadarreko herrien arteko talkak (Getxo eta Portugaleteren artekoez hitz egin genuen aurreko artikuluan), kai edo portu egokien beharra eta nabigatzeko erraza izango zen bidea.

Azken puntu horri helduta, azaldu beharra dago Getxoren kasuan, Gresaltzu (gaur egun Gobela izena duena) ibaia izan zela arazorik handiena. Nerbioi ibaian itsasoratzen zen eta berarekin alubioi-lurrak eta hondarrak zeramatzan, Portugalete parean barra bat sortuz. Horrek zaildu egiten zuen kanal horretan nabigatzea, eta berau ixteko arriskuaren beldur, ikerketa bat abiarazi zuten egoera hori konpontzeko. 1502. urtea zen eta ikerketaren ondorio nagusia Gresaltzu ibaia desbideratzea izan zen, zuzenean itsasoan amaitzeko eta ez Nerbioi ibaian (Zabala, 1990). Getxoztarrak proiektuaren kontra azaldu ziren: «ibai baten bidea aldatzea ez da kristauena, naturaren kontra lan egitea zen» (Zabala, 1990). Hala ere, erabaki hori hartzearen benetako arrazoia haien eskumenetan Portugaleteren eta Bilboren esku-hartzea izan zen.


Momentu horretan Gobela ibaia desbideratzeko ekimena bertan behera gelditu zen arren, egoera aldatu egin zen 1545ean. Getxoztarrek baldintza berriak ezarri zituzten urte horretan (kai bat eraikitzea eta hura erabilerarako eskumena) eta baiezkoa eman zioten ibilgua desbideratzeari. Hala ere, ibaiaren bidea moldatzeko lan horiek egiten ziren bitartean, Algortako portua ez zen gutxienez 1570era arte eraiki, Bilbo eta Portugaleteren interesek sortutako oztopoengatik seguruenik. Beraz, XVI. mendearen amaierarako Gobela desbideratu eta kai berri bat eraiki zuten Portugaleteko barra ez areagotzeko. Zabalak (1990) adierazita, «mendearen amaieran, gaur egun Areeta den lekuan, gutxi gorabeherako 400 brazako kai jarraitua zegoen (668 metro inguru)». Horren denaren onurak azaldu zituen elizgizon batek karta batean: «Azken urteetan hura altxatzeko eta luzatzeko egindako lanak eragina izan du eta onurak ekarri ditu barraren hasieran».

Eraikuntza-lan horien ostean, hainbat alditan berreraiki edo moldatu behar izan zuten kaia, hala nola 1712, 1763-69, 1775, 1790-95, 1806 eta 1809-1814 urteetan. Beraz, argi geratzen da Abrako itsasoan eragin zuzena izan zutela garai hartako eraikuntzek, zehazki Nerbioi ibaia eta itsasoa batzen ziren inguru horretan.

Itsasoarekin zerikusia izan zuten berezitasun historiko modura, aipamen gutxi batzuk erakusten ditu Beascoecheak (1992) bere ikerketan. Horretan, 1629ko Algortako San Nikolaseko marinelen kofradiaren ordenantza batzuk azaltzen ditu. Getxoko marinelek debekatuta zeukaten arrantzatutakoa Santurtziko portuan saltzea (Beascoechea, 1992); hala ere, itsasadarrarekiko eta naufragioekiko eskumenak lortu zituzten. Hala, 1715 eta 1797 urteen bitartean, hamabost ontzik hondoa jo zutenean, horien erreskateengatik sariak jaso zituzten marinelek. Kontsulatuak erreskate horietan nola jokatu zehazteko ordenantza bat zuen ezarrita, eta lapurrei zigor gogorrak jartzen zizkieten (Zabala, 1990).

Beraz, Abrako itsasoak paper erabakigarria jokatu zuen Portu Zaharraren eraikuntzan, baina baita Gobelaren desbideratzean ere. Nabigazioa errazteko helburua egon ez balitz, beharbada jatorrizko bideari jarraituko lioke gaur egun ibaiak, batek daki. Hala ere, aldaketak aldaketa, oraindik gizakioi naturaren fenomeno eta inertziak ulertu eta haienganako botere-gabezia onartzea falta zaigu. Nahi ala ez, urak beti topatzen du bere bidea. ◂

Bibliografia



Jose Maria Beascoechea
Getxo: monografía histórico-artística
1992, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo



Carlos Mª Zabala
Historia de Guecho
1990, Padres Trinitarios, Algorta



Sexualitate koloretsua Leire Arkotxa

Arauak bete behar badira, nork gura du normala izan?



Normaltasun delakoaz ari garenean sexu-genero sistema bitarrean oinarritzen gara, eta horrek gauza askotan eragiten digu: identitate sexuala, desiraren orientazioa, genitalak, generoaren identitatea... Baina, zer gertatzen da dikotomia hori betetzen ez dugunean?

Jeanette Wintersonek hurrengo galdera egiten zion bere buruari: «Zergatik zoriontsua izan normala izan zaitezkeenean?». Baliteke galdera horri inoiz erantzuna eman ez izana, baina seguru nago gutako askok, egin behintzat, inoiz egin diogula geure buruari.

Sozializatze-prozesuan «normala» izatea zer den ikasten dugu, eta norbanakoak duen (identitatea eta adierazpena) sexuaren eta generoaren arteko batasunari lotuta dagoen modelo bat betetzeagaz lotzen dugu. Hau da, «normaltasunaz» diharduGunean sexu-genero sistema bitarrean oinarritzen gara, eta horrek gauza askotan eragiten digu: identitate sexuala, desiraren orientazioa, genitalak, generoaren identitatea... Baina, zer gertatzen da dikotomia hori betetzen ez dugunean?

Egia da beharrezkoa den aldaketarako borroka luzea izan dela. Izan ere, marko normatibo denei aurre egiteak eragina dauka, eta ez bereziki positiboki; gehienetan, gainera, ondorioak gizartearen penalizazioan islatzen dira. Gure lehengo ideiak oso sustraituta ditugu orokorrean eta berriak ez dira osatu oraindino. Desorientatuta bizi gara, aldaketarako prozesu batean murgilduta. Hala ere, den-denak oso modernoak gara, progresistak eta ditugun ideia ireki eta askatzaileez harro gaude, baina benetan halakoak gara?

Norberak normala izateari uzten dio beharko lukeen unean edo lekuak desiratzeari uzten dionean. Norberak normala izateari uzten dio gustukoa ez dena zarenean. Norberak normala izateari uzten dio beharrezkoa litzatekeen moduan jokatzen duenean. Norberak normala izateari uzten dio normaltasuna existitzen ez dela demostratzen saiatzen denean. Baina, zer da egokia eta nork erabaki behar du horrek hala izan behar duela? Dena sinpleagoa izango litzateke pertsonak euren biografiatik ulertuko bagenitu eta ez gure moraltasunetik. Batzuetan hanka sartzen dugu beste pertsona baten errealitatea gure ikuspegitik epaitzen dugunean. Kasu horietan, ezinezkoa da pertsona horren benetakotasuna ulertzea, hura errefusatzeraino.

> Dena sinpleagoa izango litzateke pertsonak euren biografiatik ulertuko bagenitu eta ez gure moraltasunetik.

> Pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina da; horixe da gu denok ezberdintzen gaituena.

Ez ditut zenbait jokabide justifikatu gura, baina homofobia, transfobia, bifobia eta lesbofobiaren oinarria ezjakintasunaren ondorio direla uste dut. Hau da, ezjakintasunak beldurra dakar, eta beldurrak errefusa. Horren denaren harira, behinola entzundako esaldi bat etortzen zait burura: «Ideiak zapata zaharrak bezalakoak dira; oinera erabat egokitzen dira, baina, batzuetan, ez dute lur-eremu berrietarako balio eta zapatak aldatu behar dira». Aldaketarako momentu batean bizi gara, aldarrikapenetarakoa eta ikusaraztekoa. Askok zalantzan ipintzen dituzte horrenbesteko etiketak beharrezkoak diren edo ez, aurrean ditugun errealitateak izendatzeko. Badirudi izendatzen ez dena existitzen ez dela; hala, askorentzat etiketa horiek beharrezkoak dira euren burua ulertzeko eta zelan bizi diren izendatzeko.

Pertsona guztien berdintasunaren alde borroka egiten gabiltza, baina benetako dibertsitatea barneratu barik. Dibertsitateaz berba egiten dugunean, ez dugu gizon eta emakumeen bitartasunetik kanpo sentitzen diren pertsonez berba egiten bakarrik, horrek dakarren guztiagaz, hala nola bete beharreko rolak eta betetzen ez ditugunak, genitalei lotutako identitatea eta horrekiko bat egiten ez dugunean.

Dibertsitateaz berba egiten dugunean harago jo behar dugu. Ulertu behar dugu pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina dela. Ez dago izateko modu bakarra, baizik eta milaka miloi. Eta horixe da ezberdintzen gaituena, berezi egiten gaituena. Ideia hori barneratuta izan behar dugu edozein pertsonaren aurrean gaudenean. Ezberdina da, bai, baina den-denok elkarren ezberdinak garelako. Era berean, gure eskubideak aldarrikatzen ditugunean bestea modu ezberdinean jokatzen badugu beragaz, ez dugu akaso gutxiagotzen?

Askotan entzuten ditugu aniztasun sexualaren tolerantziari lotutako mezuak, eta arriskutsua da hori. Nik ez dut tolerantzia modura ulertzen, begirada bat balitz bezala baizik. Orduan, normaltasuna aurrezarritako arauak betetzea bada, nork gura du normala izan? ◂





Mundu biribil hau Fernando Mijangos

Hondakinen kudeaketa: getxoztarrak, gezurtiak?

Artikulu honetan, Getxoko Udalak hondakin solidoen kudeaketaz hitz egiteko duen foroan entzundako galdera bati buruz arituko naiz, betiko legez *Prentsa euskaraz, pentsa euskaraz* leloari eusten. Izenburuan ageri zaizuen galdera horretxez ari naiz, hain zuzen ere.

Harrituta geratu nintzen goiko galdera hori foro horretan entzun nuenean, eta hari erantzuna eman aurretik semiologian aritzen den irakasle baten arrazoi zehatzak entzun genituen; nik neuk behintzat hark esandakoarekin bat egin nuen. Are gehiago esan nuen eztabaida horretan: *gezurtero*-en kopurua semiologoak pentsatzen zuena baino altuago dela.

Semiologo horrek Getxoko familia etxebizitza batzuk elkarrizketatu zituen, patxadaz, denbora luzez, presa barik, norberaren ingurumenari buruzko ideiak, kezkak, jarrerak, parte-hartzea eta ematen dituen erantzunak ezagutu eta ondorioren bat atera ahal izateko.

INGURUMENAZ ARDURATUTA. Azaldu zigunez, oso kezkatuta gaude getxoztarrok ingurumenarekin oro har, eta gehienbat azken urte hauetan sarri entzuten ditugun klima-aldaketarekin, negutegi-efektuarekin, glaziarren urtzearekin, atmosferaren kutsadurarekin eta abarrekin. Kontzientziatuta omen gaude, eta arazo horien aurrean denok esaten dugu zerbait gehiago egin behar dugula, egin behar dutela. Denok parte hartzen dugu Naturaren aldeko jaietan, denok ekologista txikiak omen gara, esate baterako hondartzetara joaten garenean ez dugu hondakinik lagatzen harean... Inork ez du nahi zentral nuklearrik eraikitzea etxe ondoan, itsaso garbia eta arrainez betea nahi dugu, eta abar.

PLASTIKOAZ KEZKA BAI, BAINA... Semiologo horrek galdera gehiago egin zituen elkarrizketetan, garrantzia eman barik, norberaren ohiturak eta erantzunak ea bat zetozen jakin ahal izateko. Esate baterako, ea plastikoekin arduratuta gauden; dirudienez, getxoztar gehienok baietz esan genuen (erne, ez denok), itsasoan aurkitzen diren plastikoak ea guretzat kezkagarriak diren galdetzen zuenean. Gure etxeko erosketa-sistemaz galdetu zuenean, gehienek esan zuten ohikoa zela dendetara edo supermerkatuetara joan eta han erostea plastikoz inguratutako hainbat produktu.



Hondakinak ondo bereizten dituztela diote getxoztarrek

Ingurumenaren inguruko iritziez eta eguneroko jardunaz galdetu du semiologo batek Getxon, eta gehienek esan diote hondakinak ondo bereizten dituztela eta edukiontzi egokietara botatzen dituztela. Teoriaren eta praktikaren artean alde handia sumatzen da, ordea.

Gure etxeetan hondakinak nola bereizten ditugun galdetu zuenean, askok esan zioten/genion horrekin arduratuta gaudela, gauzak ondo egiten dugula eta ondo bereizten ditugula, hau da, plastikoak, latak eta tetrabrikak kontainer batera, papera eta kartoia beste batera, beira bere lekura eramaten dugula, eta gainerakoa kontainer urdinera eramaten dugula, hortxe bota behar baita.

ALDE HANDIA TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEAN. Semiologoak emandako azalpenak agerian ipintzen ditu esaten eta egiten dugunaren arteko kontradikzioak, eta errealitate gordin batera eramaten gaitu: ez gara hain onak benetan. Beraren ustez, eta datu asko eta asko plazaratu zituen uste hori sendotzeko, getxoztarren % 80k ez du egia esaten guztiz, edo desberdintasun handi-handiak topa daitezke pentsaeraren eta praktikaren artean. Teorian oso kezkatuta gaude ingurumenarekin, baina eguneroko jardunean guztiz onartezinak diren zenbait jarrera areagotzen ditugu.

Ez dut artikulu hau amaitu nahi nire ustez kopuru hori zergatik den altuagoa kontatu barik, noski. Azken finean, ni ez naiz semiologoa, kimikaria baizik, beraz zaila egiten zait egia/gezurra eztabaida semiotika horretan parte hartzea. Egia ez esatea gezurra zen definizioz nire gaztetasunean. Hala zen, bai. Gezurti ginen egia esaten ez genuenean.

Getxoko Udalak hondakinen kudeaketa aztertzeko duen foro horretan esan digute kontainer marroi berriak kale guztietan daudela, eta zabaldu ahal izateko txartel elektroniko bat behar dugula, Udalak banatzen duena norberak eskatu eta gero. Gaur egun, gutxi gorabehera, 3.000 txartel banatu dira. Eta Getxon 30.000 etxebizitza baino gehiago dagoenez, nik esango nuke getxoztarren % 10ek baino ez duela bereizten organikoa. Gainerako % 90ek zer esaten eta zer egiten dute?◂




MUXIKEBARRI
21:00
TALDE LEHIAKETA CONCURSO DE GRUPOS
3 CLAUDIO JR. DE ROSA 4ET
ANDREA MOTIS
ASTEAZKENA
MIÉRCOLES
TALDE LEHIAKETA CONCURSO DE GRUPOS
4 SZYMON KLEKOWICKI SEXTET
JULIAN LAGE TRIO
OSTEGUNA
JUEVES
TALDE LEHIAKETA CONCURSO DE GRUPOS
5 JOSÉ ÁNGEL LORENTE 5TET
KENNY BARRON TRIO
OSTIRALA
VIERNES
TALDE LEHIAKETA CONCURSO DE GRUPOS
6 MARC MARTÍN TRÍO
MADELEINE PEYROUX
LARUNBATA
SÁBADO
TALDE LEHIAKETAREN IRABAZLEA
GANADOR DEL CONCURSO DE GRUPOS
7
PAQUITO D'RIVERA SEPTET
IGANDEA
DOMINGO
GETXO JAZZ
43 NAZIOARTEKO JAIALDIA | FESTIVAL INTERNACIONAL
3 - 7 | UZTAILA | JULIO | 2019
T. 94 491 40 80
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus
SARRERA SALMENTA VENTA DE ENTRADAS
www.kutxabank.es
94 491 40 80
Algortako Kultur Etxea
(Villamonte, A8)
94 466 00 22
Romo Kultur Etxea
(Santa Eugenia, 1)
ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN
Getxo
Getxo KULTUR ETXEA
BABESLEAK PATROCINAN
Bizkaia
inaem
EUSKADI · BASQUE COUNTRY
bbk
EL CORREO
LAGUNTZAILEAK COLABORAN
metro bilbao
ORTASA MOTOR

Nortasunaren bila: Eider Moreno eta Lola Guerricaechebarria

Gazteen begiradak beharrezkoak dira haien mundua ulertzeko, eta begirada pertsonal eta intimo batetik egitea erabaki dute Eiderrek eta Lolak. Bizitzaren egunerokotasunean murgiltzen dira argazki kamerakaz, nortasunaren bila. Haien proiektuak ekarri ditugu gurera, Barakaldoko BAFFEST emakumeen argazkilaritza jaialditik pasa ondoren.

ARGAZKIAK: **EIDER MORENO ETA LOLA GUERRICAECHEBARRIA** ▶







Denak berdin jarrai dezala

Proiektu honegaz bere egunerokotasunaren erretratu intimoa plazaratu gura du Eider Morenok. Bere inguruko eta hurbileko harremanei buruzko proiektu bukaezina dugu hau, martxan dagoen prozesua da. Nortasunaren bilaketa bat izango balitz bezala islatzen du gaztetasuna, sexualitatearen eta norberaren bilaketa baten egunkari pertsonal baten antzera. Lurraldearen kontzientzia handiagoa eta ezaguera zabalagoa garatzeko eta horren kide izatearen sentimendua aurkitzeko, paisaia subliminal eta ez aipatua darabil Morenok. Irudikatutako gertakariak zein lurraldetan garatzen diren iradokitzen duten keinuak eta sinboloak aurki daitezke soilik argazkiotan.

Eider Moreno. Getxokoa, 1993an jaioa.







Lola deitzen naute

«Jaiotzen gara,
izendatzen gaituzte,
identitate bat ematen digute.
Pasaportearen argazkiak
nor naizen esan beharko luke.
Hala ere,
ez dut neure burua ezagutzen.
Amets egiten dut,
aurpegia malkoz beteta daramat,
presaka,
idazten dut,
eta orduan,
ezagutzen dut
neure burua.

Hainbat aldiz ispiluan begiratu naiz eta galdetu diot neure buruari:
Nor naiz ni? Edo galdetu beharko nuke, zu nor zara?


Beno, egia bada ere, ez dut uste sentimendu hori duen bakarra naizela, uste dut denok arazo existentzialak eduki ditugula noizbait eta nire amak dion moduan, 'hori adina da'.
Egia esanda, arrazoia duela uste dut eta denboraren igarotzea pertsona bakoitzak bere lekuan jarriko du. Baina, une hori iristean, ispiluan begiratu nahiko nuke eta neure buruari esan:

'Ez zen adina, nahia zen'.
Atzokoa nahia izan zen, gaurkoa ere eta bihar bizitzeko, mugitzeko eta sentitzeko nahia izango da'».

Lola Guerricaechebarria
Astrabudukoa, 1999an jaioa.


kind of chairs
you like?


Huhtamaki









Ricardo Mutuberria Zabala Biook elkarteko zuzendaria

«Edonork eduki behar du aukera zientzia lantzeko»

Iazko udagoienean ipini zuten martxan Biook proiektua, Ricardo Mutuberria (Algorta, 1968) biologoaren gogoan aspaldi zebilen ametsa. «Jendeak eta jendearentzat egindako biologia» goiburuak laburbiltzen du egitasmoaren funtsa. Zientziak ez du izan behar profesionalen kontua bakarrik, horixe aldarrikatzen du Mutuberriak, Zuk Zeuk Egin nazioarteko mugimenduagaz bat eginez. Haren oinarriak azaldu dizkigu elkarrizketa honetan.

TESTUAK: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

EHUn hasi zinen biologia ikasten, baina ez zenuen bide luzerik egin bertan, ezta? Hezkuntza ez zen onena, zoritxarrez. Giro ona zegoen, jai onak, kar kar... baina hezkuntza erdipurdikoa zen. Ez zen inguru ona motibazioa lortzeko. Horregatik atzerrira joateko aukeren bila hasi nintzen, hezkuntza hobetzeko; biologian, ez bazara laborategi batean sartzen eta ez baduzu beka bat lortzen ezin duzu doktoregoa egin. Diru-laguntza bat atera zen AEBetara joateko, baina kazetari-ikasleentzat baino ez. Hala ere, amak bultzatuta eskatu egin nuen, baita lortu ere. Eta hara joan nintzen.

Biologia ikastera, kazetaritza-ikasleentzako beka bategaz? Eredua desberdina da han, orokorragoa, badago *Art & Science* esaten diotena, arteak eta zientzia konbinatuta. Nik hasieratik egin nahi izan nituen biologia eta artea; posible izan behar luke hori egiteak, baina zoritxarrez hemen, oraindik, unibertsitatea konpartimentuetan antolatua dago. Hau egin dezakezu, edo hau, edo hau. Bizitza ez da horrelakoa, benetako lanpostuak ez dira horrelakoak, baina unibertsitatea iraganean dago oraindik. AEBetan, berriz, aukera eduki nuen gai ugari jorratzeko: ekonomia, psikologia, artea, laborategiko praktikak... Han lortu nuen diplomatura, 21 urterekin.

Han sortu zitzaizun Biook sortzeko grina? Urte asko daramat proiektua buruan lantzen, baina benetako lanketa azken hiru urteetan egin dut, eta proiektua bera iazko irailean sortu zen, oso berria da. Ni biologoa naiz, eta zientzia lantzea gustatu izan zait beti, baina ez dut inoiz aukerarik izan. Aukera daukagu kirola egiteko, hizkuntzak ikasteko, arteak lantzeko, alderdi espirituala lantzeko... baina zientzia lantzeko ez dago lekurik. Ez dut ulertzen gizarte teknologiko eta zientifiko honetan herritarrok aukerarik ez izatea bizitzaren edozein momentutan zientzia jorratzeko. Holandan bizi izan nintzen, doktoregoa prestatzen (azkenean ez nuen tesia irakurri eta beraz ez naiz doktorea), eta Googlen bilatzen ibiltzen nintzen ea laborategi komunitariorik ba ote zegoen munduko tokiren batean.

Zientziaren interesak

«Zientzia profesionala, batzuetan, herritar arrunten nahi eta beharretatik urrundu da. DIY eredua desberdina da; komunitatearen beharrak lantzen dira komunitateak egiten duelako zientzia»

Zientzia demokratikoa

«Zientzia demokratizatzeko, herritarrek aukera eduki behar dute, zientzia egiteko beraien dirua erabiltzen denez gero, erabilera horretaz iritzia edukitzeko»

Eta aurkitu zenuen, baina ez Googlen. Urte askoren ostean zientzia profesionala utzi nuen, zientziaren komunikazioa eta kultura zientifikoa lantzera pasa nintzen, batez ere zientzia-museoetan, eta New Yorken lortu nuen lanpostu bat, bertako historia naturalaren museoan. Han nengoela laborategi komunitario bat aurkitu nuen, Genspace deiturikoa. Eta esan nuen: «Azkenik! Norbaitek sortu du halako zerbait». Boluntario egon nintzen han, hiru urtez lan egiten, orain dela sei urtera arte edo. Laborategi hartan zientzia lantzen genuen mota eta adin guztietako herritarrekin. Jendea ikusten nuen esperientzia barik zientzia lantzen eta izugarrizko gauzak egiten, ondo pasatzen, eta benetan euren bizitzetan inpaktua zuen horrek.

Eredu hura da orain hona ekarri gura duzuna? Bai. Genspaceren eta Biooken ereduak bat egiten du nazioarteko mugimendu batekin: Do It Yourself (DIY), hau da, zuk zeuk egin. Kasu honetan, zuk zeuk egin biologia. Orain egiten gabiltzana proiektu pilotua da; helburu nagusia da Euskal Herriko lehenengo laborategi komunitarioa sortzea. Genspaceren modukoa, baina askoz hobea. Egunero zabalik egongo den gune bat, diziplina asko landuko dituena baina biologia izango duena ardatz. Az-

ken batean ni biologoa naiz eta horrek motibatzen nau gehien; bestalde, natur zientziek bizitzaren arlo guztiekin dute lotura: diseinuarekin, arkitekturarekin, artearekin, hezkuntzarekin, ingurumena eta osasuna hobetzearekin... Biologia lantzea ezinbestekoa da, aldatu egin behar dugulako beste bizidunekin dugun harremana. Eta zerbait maitatzeko, ezagutu egin behar duzu.

DIY aipatu duzu. Biooken webgunean, berriz, proiektua Herritarren Zientzia mugimenduaren barrukoa dela esaten da, eta hainbat adibideren loturak ageri dira. Filosofia horrek zabalkundea lortu duela esan daiteke? Badago Herritarren Zientzia mugimendua, badaukagu Open Science edo Zientzia Irekia mugimendua, badaukagu DIY... Oraingoz txikiak dira zientzia profesionalarekin eta beste mugimenduekin konparatuz, baina gertatzen diren tokietan inpaktu handia daukate komunitatean. Ikerlari amateur asko agertzen ari dira, gai interesgarriak jorratzen dituzte elkarlanean, parte hartzen duten guztien jakintasuna partekatuz eta elkar lagunduz, eta gainera, lantzen dituzten gaiak komunitatearen eta pertsonen interesen araberakoak dira.

Zientzia profesionalean ez da hala gertatzen? Zientzia profesionala, batzuetan, herritar arrunten nahi eta beharretatik urrundu da. Noski, gauza garrantzitsuak lantzen dira, e? Nik ez daukat ezer zientzia profesionalaren aurka, baina DIY biologia-eredua desberdina da, komunitatearen beharrak lantzen ditu komunitatea delako zientzia egiten duena. Txikienetik zaharrenera, guztiek parte har dezakete, edozein formaziomaila izanda ere, azken batean formazioa laborategian bertan lortzen da. Eta askotan lantzen dituzte komunitatearen nahiak, eta beharrak.

Adibidez? Oso adibide arruntak izaten dira ingurumena hobetzearekin zerikusia dutenak. New Yorken, Genspacek bazuen proiektu bat Brooklyneko ibai batean, tira, hobeto esanda industria-kanal batean kutsadura eta biodibertsitatea aztertzeko. Kanal hori oso kutsatuta dago, eta haiek hasi ziren bertako mikrobioma aztertzen. Zer bakterio bizi diren hor. Eta kutsadura ere aztertu zuten, zer produktu toxiko dauden eta abar. Zer ikusi zuten? Bada, leku horretan bizidun jakin batzuk badaude, bertako substantzia toxikoekiko erresistentzia dutela esan nahi du. Eta beharbada produktu horiek erabili eta eraldatzen dituzte, elikagai modura. Hortik atera zen proiektu bat aztertzeko ea nola erabil zitekeen mikrobioma hura kanala eta alboko lurrak garbitzeko. Guk geuk ere, Biooken, baditugu ingurumenarekin lotutako proiektuak. Esate baterako, badakigu Getxok eta beste udal batzuek arazoak dituztela Europak ezarritako helburu batzuk betetzeko, besteak beste Natura 2000 Sarea osatzeari dagokionez, eta gazteentzako proiektuak bultzatu nahi ditugu horretan laguntzeko.

Beste adibide bat Open Insulin izeneko nazioarteko proiektua da. Uste dut munduko intsulina-produkzioa bi farmaziakonpainiak kontrolatzen dutela; helburu ekonomikoak nagusi direnean, produktua ez da heltzen errefuxiatuen kanpalekuetara, gerra dagoen tokietara, herrialde pobreetara... Beraz, zer egin du Open Insulin proiektuak? Aukera eman die herritarrei sukalde txiki batean eta baliabide gutxirekin intsulina ekoizteko. Intsulinaren genea sartu dugu bakterioetan, edo legamietan, eta bakterioek sortzen dute intsulina, giza intsulina. Gero hori purifikatu egiten da, garbitu, eta diabetesa kontrolatzeko erabil dezakegu. Munduan badaude hainbat talde, ikerlari amateurrek osatutakoak, hori egiten.

Edozelan, ezinbestekoa izango da holakoetan ikerlari profesionalak ibiltzea proiektuak gidatzen, ezta? Ez. Badaude ikerlari profesionalak izandakoak, ni neu adibidez, baina ez da guztiz derrigorrezkoa. Izugarria da, baina askotan zientzia-formaziorik ez duten baina sormenaren aldetik hezkuntza jaso duten pertsonak (artistak, diseinatzaileak...) izaten dira proiektuak aurrera eramaten dituztenak. Hala ere, normalean komunitate horietan beti egoten dira biologoak, fisikariak, kimikariak...



Mutuberria (eskuman), urtarrilean egindako BBK Open Science jaialdiaren aurkezpen-ekitaldian. BIOOK

BBK Open Science, herritarrentzako zientzia-jaia

Urtarrilean antolatu zuen Biook elkarteak BBK Open Science jaialdia, Bilborocken. Hiru egunez, herritar arruntei aukera eman zitzaien Zuk Zeuk Egin Biologia mugimendua modurik zuzenekoenean ezagutzeko: praktikaren bidez. Besteak beste, parte-hartzaileek bio-inprimagailuak eraiki zituzten, janarian transgenikoak atzemateko gailuak sortu zituzten, laser bidezko mikroskopioak egin zituzten... Horrez gainera, DIY filosofia azaltzeko berbaldiak ere egon ziren. Biooken esanetan, Euskal Herrian egindako mota horretako lehenengo jaialdia izan zen, baita ere, «segur aski», espainiar Estatu osoan. Hori izan zen Biook elkarteak egindako lehenengo ekitaldi irekia. Gerora, ikasleentzat mota denetako mikroskopioak egiteko lantegiak ere antolatu dituzte, esaterako. Bitxiena da hasiera batean Biook Bartzelonan sortzeko asmoa eduki zuela Ricardo Mutuberriak, izan ere han bizi baita orain dela hiru urtetik. Azkenean, ordea, BBK Fundazioak eman zion aukera proiektua garatzeko, eta harrezkeroztik Kataluniaren eta Euskal Herriaren artean joan-etorri ugari egitea egokitu zaio algortar biologoari.

Zientziaren demokratizazioaz idatzi izan duzu. Hori da, azken batean, honen guztiaren helburua? Bai.

Eta horrek zer esan gura du, zientzia ez dela demokratikoa? Horixe bera. Zientzia ez da demokratikoa. Guk bi gauza egiten ditugu: batetik zientzia desmitifikatu, eta bestetik zientzia demokratizatu. Zientzia demokratizatzeko, edonork eduki behar du aukera zientzia lantzeko, hori lehendabiziko baldintza da. Zientzia demokratizatzeko, herritarrek, gizarteko gizon-emakumeek, aukera eduki behar dute, zientzia egiteko beraien dirua erabiltzen denez gero, zientzia ezagutzeko, diru horri ematen zaion erabileraz iritzi bat edukitzeko. Hori Europak bultzatzen du, Responsable Research and Innovation du izena [Ikerkuntza eta Berrikuntza Arduratsua]. Gizarteak zeresana eduki behar du zientzian lantzen denaz.

Ez dakit hain erraza den; herritar xeheontzat zaila da zientzian egiten diren gauza asko ulertzea. Gaur egun zientzian eta teknologian jakintza asko daukagu, eta galdera da: nork kontrolatuko du jakintza hori guztia? Nork erabiliko du, eta zertarako? Gaur egun, batez ere, merkatuak kontrolatzen du jakintza hori, eta bere logikaren arabera erabiltzen du, batez ere dirua lortzeko, hori da helburua. Baina ez luke hala izan behar. Helburuak izan behar du gizartearen hobekuntza, eta pertsonen bizitzaren hobekuntza, eta planetaren hobekuntza. Beraz, jendeak iritzi bat edukitzeko, erabakiak hartu ahal izateko jakintza nahikoa izateko, zer gai diren landu beharrekoak erabaki ahal izateko, hau da, zelan eta zertarako erabiltzen ditugun zientzia eta teknologia... Horretarako beharrezkoa da zientzian parte hartzea, zientzia demokratizatzea, eta txikitatik nahi duen orok aukera edukitzea zientzia jorratzeko. Jakintza, hezkuntzan, praktikaren bidez lortzen da, eta praktika horren bidez pentsamendu kritikoa lantzen da eta iritzi bat eduki daiteke. Hori beharrezkoa da, azken batean gure bizitzak izugarri baldintzatzen baitituzte zientziak eta teknologiak.

«Desmitifikatu», esan duzu. Besteak beste, azaldu beharko duzue zientzia ez dela oso buruargiak diren gutxi batzuen

kontua bakarrik... Bai, hori da zientziaren mitoetako bat. Nik, laborategi komunitarioetan, ikusi ditut institutuetako gazteak, 15-16 urteko neska-mutilak, izugarrizko zientzia-proiektuak aurrera eramaten, oso kalitate handikoak eta oso teknika aurreratuekin. Laborategian sartu baino lehenago, gazte horien zientzia- edo biologia-jakintza oso txikia zen. Teoria baino ez, eta gutxi. Baina zientzia lantzea sukaldaritza bezalakoa da, edo oso antzekoa, edonork egin dezake. Bakailaoa egiten duzunean pil-pil eran, protokolo bati jarraitu behar diozu, eta ez da erraza. Prozesu horretan fisika, kimika eta biologia daude. Eta zuk bakailaoa egiten duzunean bi aukera daukazu: protokoloari jarraitzen diozu eta ez dakizu ezer fisikaz, kimikaz eta biologiaz, edo alderdi biak lantzen dituzu. Laborategi komunitario batean protokolo bat egitea erraza da; gaur egun kit batzuk saltzen dituzte, eta adibidez zure DNA-a aztertzeko aukera daukazu, ez da batere zaila, edonork egin dezake. Baina guk bultzatzen duguna da momentu berean, lan praktikoa egiten duzun aldi berean, alderdi teorikoa ere lantzea. Hala ere, lehenik eta behin praktika behar da, derrigorrezkoa hori da. Eta noski, tailer praktiko horretan behar den jakintza teorikoa egiten dituzun gauzen arabera eskuratzen da. Hori da mitoa: edonork ezin duela zientzia landu, zientzialari profesionalentzat baino ez dela... Gezurra. Zientzia hasiera batean ez zen profesionala, zientzia lantzen zuten asko amateurrak ziren, tira, dirudunak, denbora zeukatenak.

Erraza da Do It Yourself filosofia txertatzea kosmologian, edo fisika teorikoan, edo... biologia baino zientzia «gogorrago» batzuetan, zilegi da hala esatea? Interesgarria da galdera, zeren, adibidez, orain arte astronomia asko landu dute zientzialari amateurrek, eta aurkitu dituzte fenomeno astronomikoak, planetak, eta abar. Paleontologian ere bai, aspalditik dago paleontologo amateurren elkarte bat, eta haien produkzio zientifikoa oso interesgarria da. Arazoak sortzen dira, adibidez, fisika kuantikoa lantzeko, behar baldin baduzu CERNen dagoena bezalako partikula-azeleragailu bat, noski, amateurrek ez daukate aukera hori [Suitzan dagoen CERNen Hadroi Talkagailu Handiaz ari da; 27 kilometroko luzera duen tunela erabiltzen du esperimentuak egiteko]. Baina oro har, zientzia lantzea merke bihurtu da arlo askotan. Ni doktoregoa prestatzen nenbilenean, DNA sekuentzia txiki bat irakurtzea 1.000 euro kostatzen zen, gaur egun gauza bera hamar euro ordainduta lor daiteke. Badago DIY erreaktore nuklear txiki bat sortu duenik, izugarria da. Baita ere mikroskopio elektroniko bat. Badaude izugarrizko proiektuak DIY mugimenduan. Ni neu harrituta geratzen naiz baina jende oso dohaintsua dago munduan, eta oso DIY direnak.

Eta zer dio horretaz Zientziak, Akademiak, letra larriz? Hor bi gauza gertatzen dira. Alde batetik, zientzia profesionala (unibertsitateak, ikerkuntza-zentroak, enpresak) oso sartuta dago bere munduan, apurtxo bat deskonektatuta gizartetik. Baina unibertsitatea eta beste erakunde asko ere bai, e? Erakunde tradizionalak... Gizartea askoz aurrerago joaten da erakunde horiek baino. Orain egon gara hitz egiten zientziaren kosteaz eta zientzia gogorragoak lantzeaz DIY mugimenduaren barruan; bada, begira zer gertatu den informatikarekin: mundu digitala oraintsu arte ezezaguna zen, ni gaztea nintzenean agertu ziren lehen ordenagailuak, eta bat-batean izugarrizko boterea, izugarrizko teknologia daukagu gure eskuetan; oraintxe hemen daukadan mugikorrarekin gauza izugarriak egin ditzaket. Biologian, eta beste zientzietan, antzeko gauzak gertatzen ari dira. Gaur egun saldu egiten dituzte maleta txiki baten tamaina daukaten biologia-laborategiak, biologia molekularra egiteko balio dutenak. Gutxi gorabehera 1.000 euro inguru kostatzen dute, eta denetik egin dezakezu haiekin, laborategi profesional batean behar-beharrezkoa den guztia hor daukazu.

Nik galdetu nahi nuena da ea zientzia profesionalak kritika egiten dion DIY mugimenduari, herritarren zientziari. Ez. Alderantziz gertatzen ari da. Batetik, zientzialari profesionalek ez dute mugimendua ezagutzen, ni apur bat harrituta geratzen naiz mugimendua aurkezten diedanean, beraiek harrituta geratzen direlako: «Baina hau benetan existitzen da? Jendeak zientzia egiten du horrela?». Normalean beraien erantzuna ona da. Izan ere, zientzialari profesionala izatea ez da batere erraza. Sakrifiziozko bizimodua da, beti egon behar duzu diru-laguntzen bila, oso lan prekarioak dira, ziurtasunik gabeak... Laborategi bateko burua izatera heltzea oso zaila da, eta heltzen zarenean, zoritxarrez, zientzia albora utzi behar duzu neurri batean. Zure lanaren parte txiki bat izango da zientzia lantzea, eta gainerakoa burokrazia, diru-laguntzak lortzea... Beraz, batzuetan badauzkagu, boluntario moduan, doktoregoa edo doktorego-ondokoa egiten ari diren batzuk. Gurekin egiten dute lan eta oso pozik daude, bat-batean beste aukera bat agertzen baitzaie zientzia lantzeko. Esan dudan bezala, oraindik mugimendu txikia da gurea, hazten dabilena, beharbada hezkuntzara oso bideratua, baina azken batean sortzen ari den eredu paralelo bat da, eta ziur nago hemendik aurrera zientzialari izateko aukera bat baino gehiago izango dugula. Zientzia profesionalaren bidean pribilegiatu gutxi batzuk sar daitezke gaur egun, batez ere oso ikasle onak direnak eta hezkuntza teorikoa ondo menperatzen dutenak, baina beste eredu paralelo hau alderantzizkoa izango da: alderdi praktikoa jorratuko da, elkarlana...

HIRUKAn ere kolaboratzen hasi zara, eta momentuz idatzi duzun artikulu bakarrean (ikus 145. zenbakia) oso kezkatuta agertu zinen ingurumenaz, planetaren geroaz... Nire helburua, egia esateko, bizi dugun ingurumen-krisi hau aipatzea zen. Niretzat, gaur egungo gai garrantzitsuenak desberdintasun sozialak eta ingurumena dira, eta biak lotuta daude. Zientzialariok badauzkagu froga guztiak jakiteko klima-aldaketa gertatzen ari dela, eta ondorioak dramatikoak direla. Beste guztia, lan-egoera, migrazioak, arnasten duguna eta jaten duguna... guztia dago horri lotuta. Ez badugu berehala zerbait egiten, gure seme-alabek arazo handiak izango dituzte bizimodu normal eta atsegina edukitzeko. Ez daukat seme-alabarik baina bai ilobak, asko gustatzen zait txikiekin lan egitea, eta askotan pentsatzen dut hauei utziko diegun planeta, utziko diegun miseria, ez dutela merezi. Gaur egun zortea izan dezakezu, Algortan jaio zaitezke eta egoera ekonomiko lasaia eduki, hezkuntza, osasungintza... edo jaio zaitezke Ghanan, Nigerian edo Bangladeshen. Zoritxarrez hori gertatu egiten da eta desberdintasun sozialak handiak dira. Baina klimaren eta ingurumenaren arazoak guztiok joko gaitu. Gogortasun desberdinekin, noski, baina denok pairatuko dugu. Gure seme-alabek, nahiz eta Algortan jaio, hemendik 50-100 urtera arazo larriak edukiko dituzte ez badugu zerbait egiten. HIRUKAko artikulu hura idatzi nuen lagunekin hitz egiten harrituta geratu nintzelako, momentu horretan oso eguraldi ona geneukan, ez zen batere normala, eta lagunak entzuten nituen esanez: «klima-aldaketa hau bada, ondo hartuko dut», barre-artean. Ez gara konturatzen daukagun arazo larriaz.

Zientzia modu komunitarioan lantzeak laguntzen du ikuspegi hori garatzen? Noski. Metodo zientifikoa lantzen duzunean hiru gauza garrantzitsu gertatzen dira: alde batetik sormena lantzen duzu, azken batean zientzia behaketa da, galderak eta probak egitea, zure ideiak egiazkoak ala gezurrezkoak diren jakiteko. Bestetik, gauzak txarto irteten direnean, edo emaitzek ez badute zure ideia berresten, porrota onartu behar duzu, baina ez da benetako porrota; emaitza ez denean zuk uste zenuena prozesuak jarraitu egiten du, hor ere garrantzitsua da aurrera egitea. Eta hirugarrenik, pentsamendu kritikoa eta analitikoa garatzen dituzu, eta adibidez ingurumenari buruzko proiektuak lantzen dituzunean barneratu egiten duzu arazo hori, zure bizitzaren parte bihurtzen da. Ondorioz, zure eguneroko bizimodua ere aldatu egiten da. Nazio Batuen Erakundearen hobekuntzarako helburu gehienak DIY mugimenduak lantzen ditu eta, nire ustez, oso mugimendu garrantzitsua da helburu horiek lortzeko. ◂



Joko biotikoak

Pacmana, parametrioakaz

Biook elkarteak esku artean dituen proiektuetako bat da joko biotikoen jardunaldiak antolatzea. «Bideo-jokoen modukoak dira, baina izaki bizidun mikroskopikoak erabilita», azaldu digu Ricardo Mutuberriak.

«Batez ere parametrioekin egiten da, baina beste izaki batzuekin ere, legamiak esaterako, batzuk zelulabakarrekoak eta beste batzuk handiagoak», dio Mutuberriak. Gakoa da organismo horiek erantzun egiten dietela hainbat estimuluri (argia, elektrizitatea, magnetismoa...), eta horren bidez haien mugimendua kontrolatzen saia daitekeela. Modu horretan, mikroskopioa ordenagailu baten pantailara konektatuta, joko bat sor daiteke. Stanfordeko Unibertsitateko ikerlariek, esaterako, Pacman joko ezagunaren bertsio bat sortu dute parametrioakaz. Izaki horiek dauden likido batean polaritatea aldatuz, jokalariak ahalegintzen dira parametrioak gura duten lekurantz mugiarazten, eta pantailako bolatxoak «jan» arazten.

Ricardo Mutuberriaren esanetan, mota horretako jokoetan aritzeaz gainera, parte-hartzaileek antzeko beste joko batzuk diseinatuko dituzte Biookek antolatutako jardunaldian. Bestalde, nazioarteko adituak ekarri gura dituzte, joko biotikoek izan ditzaketen inplikazio eta aukerez berba egiteko.

Kantaguneak Kaleak doinuz janzten



Euskal Herriko kantutegia, jalgi hadi plazara!

Altzaga auzoko Kantagunea (Erandio) da Uribe Kostan aitzindaria, eta Euskal Herriko zaharrenetakoa ere bai.

Euskal Herrian kantagune-taldeen eztanda izan da azken hamarkadan, eta Uribe Kosta ez da salbuespena, ez denez. Filosofia sinplea da: kantuaren bidez euskara kalera ateratzea. Ondo pasatzeak ere ez du kalte egingo.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Aste-akabua, bariku arratsaldea seguruenik. Ohiko potea hartzen zabiltza eta horra hor, aldamenean, jende-multzo handia, honezkero sano ezaguna ere bai, betiko kantuak ahoan darabiltzala. Norberak erabaki beza «betiko» adjektiboari zer kutsu eman, ona edo txarra. Euskaraz kantatzen dute, gitarra batek eta pare bat soinuk lagunduta, eta gaztaroa gainditua izan ohi dute. Kantagunea izena dute herri batzuetan, Kantari besteetan, antzekoren bat ia denetan. Gehienak maiztasun finkoz irteten dira kalera, normalean hilean behin, eta entseguak ere egiten dituzte askok. Uribe Kostako zenbait herritan aste-akabuko paisaiaren parte bihurtu dira daborduko.

Josu Zarate erandioztarrak ondo ezagutzen ditu mota honetako taldeak. Altzaga auzokoaren eta Bilbokoaren sortzaileetako bat da, eta bi horietan ez ezik, zuzendariarena egiten du Astrabuduakoan ere. «Tira, zuzendari-zuzendari... gurago dut dinamizatzaile berba», ñabartu du, «besoak mugitzen dituena naiz ni, azken batean, lan hori egiten duenik ere behar izaten da eta». Erandion Kantagunea sortu zuten momentua gogora-





tu du Zaratek, eta haren kontakizunak lagunduko digu, beste ezerk baino hobeto, fenomenoaren gakoak ulertzen.

2000. urtean, Altzaga ikastolako guraso-elkarteko zenbait Santa Ageda bezperan koplak kantatzera irtetea erabaki zuten. «Horren ostean, batek proposatu zuen betiko euskal kantuak a egiteko biltzen hastea, eta hori izan zen abiapuntua; hilean elkartzeari ekin genion, kantuak ikasteko», gogoratzen du Zaratek. Esan barik doa, euskaltzaletasunak bultzatu zituen pauso hura egitera: «Erandion, eta are gutxiago gure auzoan, Altzagan, euskarak ez zuen eta ez du presentzia handirik kalean; zer edo zer egin gura genuen euskara kalera ateratzeko, eta pentsatu genuen kantua bide aproposa eta erakargarria izan zitekeela, dibertitzea ere helburuetako bat baitzen». Horrela hasi zen ia hogei urte dirauen ibilbidea, artean fenomenoa gaur egun bezain zabalduta ez zegoela. «Bizkaian aitzindariak izan ote ginen? Ez dakit, baina baliteke», dio Josu Zaratek.

GAZTEAK ZELAN ERAKARRI. Uribe Kostan gaur egun dabiltzan gainontzeko taldeak amaitzear dagoen hamarkada honetan jaio ziren. Aldeak daude besterik bestera, baina ezaugarri komun asko dituzte. Horietako bat, parte-hartzaile gehienek erretiroaren adinaren bueltan ibiltzea; herriren batean aurpegi gazte ugari ikusi badaiteke ere, ez da hori ohikoena.

«Behin baino gehiagotan eduki dut gazte jendea erakartzearri buruzko eztabaida», aitortu digu Josu Zaratek, «inoiz baten batek esan dit "geu gara azkenekoak, gure ondotik ez da inor etorriko kantuan", eta ez dut uste hala denik». Gaur egun Altzagako Kantagunean dabiltzanetatik, gazte-sasoian oso gutxi kantatzen zutela gogoratzen du bertako dinamizatzaileak. Haren iritzi, «aztetan beste lehentasun batzuk izaten dira, batez ere aste-akabuan; baina gu orain kantuan bagabiltza, gaztetan beste batzuk ikusi ditugulako izan da, Euskal Herrian beti kantatu izan da eta». Bestela esanda, oraingo gazteek etorkizunean erreleboa hartuko dutela uste du Zaratek.

Beste faktore batek ere azal ditzake adin-kontuok: «Gure garaian melodiak zeukan garrantzia, gaur egun, aldiz, sarritan tresnak daude ahotsaren gainetik, eta kantu asko ez dira errazak taldea handietan abesteko». Horren ondorioz beharbada, kantaguneetako parte-hartzaileak bezain «beteranoak» izaten dira errepertorioak ere, oro har. Horri lotutako beste gaitz bat izaten da kantu-zerrendetan aldaketa gutxi egotea hil batetik bestera. Azken batean, bertan dabiltzanen gustuaren araberakoa da hori, baina arriskua ere badu, batez ere helburua inguruan dabilen jendea kantura erakartzea dela kontuan izanda. Hor zehar dabilen txiste batek dioenez, ez dadila kantagunea *kantsagune* bihurtu.

Kritikak kritika (egon badaude eta), euskarari bultzadatxoa emateko helburua bete egiten dela uste du Josu Zaratek. Eta ez bakarrik kalean entzunarazteagatik. Parte-hartzaileetako asko erdaldunak izanda, kantaguneetan ibiltzeak lagundu egin die euskarara hurbiltzen. Ez da negozio txarra, prezio bakarra lagunartean goxo egotea dela kontuan izanda. ◂

Hogei urte *Epherrak* abesten, eta liburuari begira oraindino

Elkarrizketaren amaiera hurbildu ahala, ezin izan diogu eutsi Josu Zarateri pare bat galdera zirikatzaile egiteko tentazioari. Hona hemen emaitza, eta barka diezagula kantaguneen jainkoak, halakorik existitzen bada...

Ia hogei urte kantu berak abesten, eta oraindino letrari begira denak, ezi buruz ikasi... Esperantza galduta duzu honezkero? Beti haserretzen naiz apur bat, barka nazatela baina... Batez ere Santa Agedako koplekin: «Jode, 2000. urtean hasi ginen, bi kantu dira, urtero berdinak, eta oraindino ez zarete kapazak izan ikasteko?». Tira...

Egitarau ofiziala amaitu da, baina inork ez du etxera joan gura. Errepertorio estraofizialean, ordea, erdara barra-barra... Jendea oso da horren zalea, eta eskatu egiten du, lehen gehiago orain baino: «*¡Eh, unas sudamericanas, unas rancheras!*». Barka, baina Kantaguean gaudela euskaraz kantatuko dugu; gero, modu informalean, nahi duzuena. Ez dago arazorik horrekin, gauden tokian gaude, daukagun gizartea daukagu, eta gauza batek ez du bestea kentzen, baina kalean, modu «serioan» gabiltzala, gure errepertoriokoak bakarrik.

Uribe Kostako kantaguneak

Kantagunea Erandio (Altzaga)
Eskualdeko talderik beteranoena 2000. urtean sortu zen, baina orain dela 4-5 urte arte ez ziren hasi maiztasun finkoz kalera irteten. Hileroko bigarren barikuan ibiltzen dira Altzagako kaleetan kantari. Entseguak, berriz, hamabostean behin egiten dituzte, eguaztenez, kantu berriak ikasteko.

Armintza
Zortzi urte inguru daroate lantzean behin kalera irteten. Hilero egite ahalegintzen badira ere, urtean zortzi edo bederatzi saio antolatzen dituzte. Ez dute entsegurik egiten.

Kantagunea Astrabudua
Oraindik orain (ekainaren 2an) ospatu dute laugarren urteurrena, eskualdeko beste taldeak gonbitatuta. Bi astelehenero batzen dira entseguak egiteko, baina ez daukate maiztasun finkorik kalera irteteko. Jaietan eta ekitaldi berezietan kantatzen dute, eta Altzagako Kantaguneagaz bat egiten dute batzuetan.

Berango Kantari
Eskualdeko berrienetakoa da, 2017ko martxoan sortu zen eta. Hilero, azken barikuan ateratzen dira kalera kantatzera, batzuetan Sabino Arana kalean eta beste batzuetan (hirutik batean), Lantzarte, Axgane eta Basotxu auzoetan. Ez dute entsegurik egiten.

Kantari Kanta (Getxo-Algorta)
Ekainaren 8an egingo dute III. Kantari Eguna Algortan. 2017tik dabiltza martxan, Itxas Argia dantza-taldearen inguruko jendeak bultzatuta. Hileroko lehenengo barikuan entsegua egiten dute eta ondoren Getxora ateratzen dira kantatzera; hirugarren barikuan, berriz, Algortara igotzen dira.

Kantuz Itzubaltzetan
Gutxi gorabehera orain dela zazpi urte sortu zen taldea. Eguenero elkartzen dira entseguak egiteko; lehenik dantza egiten dute euretako batzuek, eta ondoren kantuan ibiltzen dira. Hileroko azken eguenean kalez kale ibiltzen dira.

Plentzia Kantagune
2012an hasi zen Plentziako taldearen ibilbidea. Hilean bitan ateratzen dira, bigarren eta laugarren barikuan. Kalejira egin aurretik entsegua egin ohi dute baselizan, eta ostean Alde Zaharreko kaleetan ibiltzen dira.

Sopela Kantari
Udaberri honetan bost urte bete ditu Sopelako taldeak. Entseguak astero egiten dituzte, eguaztenetan. Hileroko lehenengo barikua aukeratu dute kalean ibiltzeko, eta sarritan dantza egiten dute kantu eta kantu artean. Sopela erdigunean ibiltzen dira normalean, baina urtean 2-3 aldiz Larrabasterran egiten dituzte saioak.





Irakurrian ***Amets itoak***

Ametsa, amesgaizto bihurtuta

Nasha iheslari afrikarraren istorio lazgarria abiapuntu, thriller tankerako eleberria taxutu du Aritza Bergarak, mendebaleko gizartearen hipokresiaren salakuntzatik asko duen kontakizun honetan.

TESTUA: **JOKIN DE PEDRO** ▶

Aritza Bergara idazle sestaoarrak, mitologiaz idatziriko lanez gainera, nobelagintzan lan oparoa egin du, gizartea inarrosten duten gaiak lehenetsita. Maiatzaren 29an Plentziako Irakurzaleen Txokoan komentatu genuen eleberrian, egun puri-purian dagoen auzi bati oratu dio. Iradoki lezakeen bezala, izenburuak zapuzturiko esperantzari egiten dio aipamen. Behinola europarrek «amerikar ametsaren» xerka ozeanoa zeharkatzera jotzen zuten antzera, egun Afrikatik Europara milaka migratzaile (iheslari, hobe) abiatzen dira urtero; hori bai, haiek baino beharrizan larriagoek bultzaturik eta askoz ere baldintza okerragoetan.

Eleberri honetan, hortaz, migratzaileen sorlekutik abiaturik, gizakion salerosketa, prostituzioa eta beste miseria batzuk azaltzen dira, gehienak gure herri maite honetan kokatuak. Lehen kapitulutik konturatzen gara kontakizun latz baten aurrean gaudela: Kongoko herrixka batean sarraski ikaragarri bat gertatzen da, non bizirik irtetea lortu duen neskatxa bat, Nasha, ihesean abiatzen den noraezean. Ama galdu du, familia guztia bezala, eta bakar-bakarrik bizirauteko oinazezko ibilaldi luzea egin beharko du, gorputza saltzera beharturik Europara ihes egin ahal izateko dirua eskuratzearren. Nasha izango da gorabehera askoren ondoren, Bizkaiko kostaldera iritsiko diren migratzaileetako bat. Gure lurrean, baina, ez dira amaituko haren oinazeak: hemen ere mafiak daude, eta esplotazioak jarraitu egiten du. Itxaropenerako zirrikiturik ez dago, eta horrek goibeltasun handia ematen dio migratzaileen istorioari, hain beltza ez den ikerketaren hariak sortzen dituen jakin-minak eta tentsioak ezin arindu dezaketena.



Amets itoak

Egilea: Aritza Bergara
Autoeditatua
Urtea: 2018
Orrialde kopurua: 288
Jatorrizko hizkuntza: Gaztelania
Itzulpena: Eneko Gonzalez

Albo-gaiak ere badira, bereziki Euskal Herriaren desindustrializazioa eta droga-trafikoa, eta horiek genero beltzaren ukitua ematen diote testuari. Ondorioz, gaurkotasunezkoa bezain gordina dugu *Amets itoak*. Bada, baina, generoari dagokion idazlearen parte-hartze bat, hau da, aldizka gaiaren inguruan lehen pertsonan egiten dituen iruzkinak, migratzaileen egoera eta beraiekiko jokabide bidegabeak salatuz, sarritan iritzi-testu edota kronika bati gehiago dagozkionak; horrek, noski, ez dio literaturtasunari mesederik egiten.

Pertsonaiei dagokienez, ohikoa izaten den bikote bat, oraingoan Martin eta Laia, jarri du idazleak ikerketari ekiteko lanetan; gainerako pertsonaiak muturreko samarrak dira: oso gizagaixoak eta dohakabeak (Nasha bezala) edo oso-oso gaiztoak, Rafael eta Melguizo legez.

Bestalde, pasarte batzuetan igarri egiten da Bergararen testu originala ez dela euskaraz idatzia, nahiz eta itzulpena txukuna dela ezin den ukatu. ◀



Jaiak

hiruka
Gehigarri berezia

148. zenbakia
2019ko ekaina



Udako lehenengoak!

Barrikan eta Leioan, sanjuanak; Erandiogoikoan, Gorpuzti jaiak; eta Sopelan, sanpedroak. Askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera egongo da udako solstizioaren atarian.

Barrikako jai-batzordea San Juan jaiak

«Jaiak harremanak sustatzeko gunea izatea nahi dugu»

Ekainaren 21ean hasi eta astelehenera arte, hilaren 24ra arte, iraungo dute San Juan jaiek Barrikan. Hala ere, aurreko aste-akabuan ere zer egiteko aukera egongo da, hala nola argazkilaritza-rallya, herri-ibilaldia eta aire zabaleko pintura-lehiaketa.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **NINBE LANDA LARRINOA** ▶

Boluntarioak zarete denak, zer dela eta erabaki duzue jai horien antolakuntzan parte hartzea? Egiten dugun lana boluntarioa da eta ez dugu beste era batean planteatu nahi. Izan ere, Barrikako jai-batzordea jai-eredu parte-hartzaileago eta zabalago batez gozatzeko asmoarekin jaiotako egitasmoa da. Zeregin honetan hasi aurretik, Udaleko Kultura Sailak antolatzen zituen jaiak, herritarren parte-hartze eskasarekin. Gaur egun, ordea, adin guztiei zuzenduriko egitaraua dugula esan dezakegu, festagune parte-hartzailea eta parekidetasuna sustatzen duena, sanjoanak barrikoztar oro elkartzen garen ekitaldia bihurtuz.

Zahar, gazte... Adin denetako partaideek osatzen duzue jai-batzordea. Etorkizun hurbilean lekukoa hartuko duenik badago herrian? Ufa... hori bai galdera zaila! Batek daki etorkizunean zer gertatuko den... Horixe espero eta desiratzen dugu bai; gero eta jende gehiago animatzea gustatuko litzaiguke, ideia berri eta freskoekin. Ateak zabal-zabalik ditugu jai-batzordean. Parte hartu nahi izatekotan, hona hemen gure helbide elektronikoa, idatzi egiguzue inolako arazorik gabe: barrika.j.b@gmail.com.

Berritasunik egongo da aurten jaietan? Aurtengo jaiak jasangarritasunean eta ingurumenarekiko errespetuaren garrantzian oinarritu ditugu. Horregatik, plastikoari planto egingo diogu, material horren erabilpena murriztuz eta aukera dagoen heinean berrerabiliz. Jadanik joan den urtetik, herri-bazkari denetan (saiheski- eta sardina-jana...) plastikozko platerak emateari utzi genion. Ildo horretatik, aurten bestelako neurriak hartu ditugu eta jai-programan baliabideen jasangarritasuna sustatzen dituzten ekintzak barneratu ditugu.

Nor gonbidatu duzue aurten San Juan gaueko suaren ikuskizunerako? Aurten Bizkaia mailan su- eta perkusio-espektakuluetan nagusi den konpainietako bat izango dugu Barrikan: Deabru Beltzak. Ikuskizun berria dakartzate, beraz, hurbildu zaitezte ekainaren 23an Barrikara ikuskizun paregabeaz gozatzera! ◀

Pala-txapelketa, are indartuago

Urtez urte, parte-hartzea handiagoa da Barrikako pala-txapelketan. Aurten izen-emateak areagotu egin dira berriro ere: nesken hamahiru bikote, mutilen 28 bikote, eta 22 bikote misto. «Emakumezkoen txapelketa gora egiteak izugarri pozten gaitu», azaldu dute jai-batzordekoek.











Egitaraua

Ekainak 15, zapatua

08:30-15:00 V. Argazkilaritza Rally digitala. Izen-ematea doakoa izango da, udal kulturgunean.

Ekainak 16, domeka

09:00-12:30 V. Ibilaldi herrikoia. Ibilaldi luzea: 11,2 kilometro. Irteera 09:00etan, Txintxilandia plazatik. Ibilaldi laburra: 3,8 kilometro. Irteera 11:00etan, Txintxilandia plazatik. Izen-ematea doan, ekainaren 14ra arte, udal kulturgunean; edo egunean bertan.
12:00-14:00 VII. Aire zabaleko margolarien lehiaketa. 0 eta 12 urte arteko umeek parte hartu ahal izango dute norgehiagokan.
16:30-19:00 IX. Multikirol jardunaldia, Barrikako piragua-taldearen, Abaroa Tenis Taldearen eta Barrikako futbol-eskolaren eskumenez.

Ekainak 21, barikua

18:00 Billar-txapelketa Jubibarrikaren eskumenez.
19:00 Txupinaren jaurtiketa eta pregoiaren irakurketa, Txintxilandia plazan.
19:00-20:30 Trakamatraka ikuskizuna eta umeentzako tailerra.
20:00 Sardinada herrikoia eta sagardo-festa.
20:30-00:00 Erromeria Alaiki.
21:00-01:00 Emakumezkoen gaueko tenis- eta padel-txapelketa.

Ekainak 22, barikua

11:30-13:00 IX. Pala Txapelketaren finalaurrekoak, emakumezkoena, gizonezkoena eta mistoa.
11:30-14:00 XLIII. Sukalki Txapelketa. Izen-emateak: 11:00etan Txintxilandia plazan.
12:00-14:00 Umeen Eguna, puzgarriak eta aurpegi-margotzaileak.
12:00-14:00 Txopolis fanfarrea.
18:00-19:00 Monda Lironda ikuskizuna.
19:00-19:45 Harri-zulatzaileak.
20:00-22:00 Disko-festa Urtzagaz.



21:00-01:00 Gizonezkoen gaueko tenis-eta padel-txapelketa.
23:00 Roca & Rollo taldearen kontzertua.

Ekainak 23, domeka

10:00 XXIV. Nekazaritza eta Artisautza azoka.
11:00-13:00 Herri-kirol tailerra umeentzat.
11:30-13:00 IX. Pala txapelketaren finala, emakumezkoena, gizonezkoena eta mistoa.
12:00-14:00 Puzgarriak.
13:00-13:30 Barrikako euskal dantza-taldea eta trikitilariak, Emakumeen Hitza Elkartearen eskumenez.
14:00-14:30 Bertsolariak azokan zehar.
14:00 Bendeja-sariak eta margolari-lehiaketaren sariak.
16:30 Mus-txapelketa.
18:00-19:00 Txan Magoa.
19:00-21:00 Dantza-plaza Dangiliskegaz.
21:30 Tai-xi erakustaldia.
22:00 San Juan sua ikuskizuna, Deabru Beltzak taldeagaz.
23:00 Txokolate-dastaketa.


Ekainak 24, astelehena

11:00 Meza Nagusia.
12:00-12:30 Barrikako Aita Gotzon abesbatza eta Sopelako Lagun Artean abesbatzaren kontzertua.
13:00 Agurra.
14:00 Barazki-txapelketako sari-banaketa, udaletxeko plazan.
15:00 Herri-bazkaria. Nagusiek 15 euro eta umeek 10 euro. Tiketak udal-liburutegian eros daitezke, ekainaren 19ra arte, 16:30etik 20:00etara. Ekainaren 21etik 24ra txosnan eska daitezke baita ere.
16:00 Eurodantza.
17:00 Igel-toka txapelketa Nagusien Etxean.

hiruka *app*

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

Agenda
Albisteak
Argazkiak eta bideo albumak
Geolokalizazioa
SOS botoia



ESKURAGARRI HEMEN: Google Play
ESKURAGARRI HEMEN: App Store

Deskargatu!

INDARlan
OBRAS Y EVENTOS S.L.L.

Gure bezeroen eskura honakoak jartzen ditugu:

EKITALDIETAN: komuna-eramangarriak, modulu aurrefabrikatuak, txoznak, hesiak (itxiera, izuaren aurkakoak, oinezkoentzakoak...)

ERAIKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK:
- Modulu aurrefabrikatuak (komunak, bulegoak, aldagelak), eskorak, segurtasun elementuak, itxiera-hesiak.
- Komuna automatikoak eta mantentze-lan berezituak.

Bermeo bidea, 5. Mungia. 94 471 14 41 - indarlan@indarlan.biz

Leioa San Juan jaiak

Txosnak lekuz aldatuko dira, jaie

Berrikuntza handi bat egongo da aurten Leioako sanjuanetan: aspaldiko partez, lekuz aldatuko dira txosnak, herriaren erdi-erdian egoteko ametsa oraingoz beteko ez badute ere. Bertako egitaraua indartzeko ere ahalegin berezia egin du txosna-batzordeak. Udalaren esku dagoen egitarau-zatia, berriz, ez da publiko egin lerro hauek idazteko momentuan.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Aldapan segituko dute Leioako txosnek, baina askoz malda txikiagoan. Hainbatetan saiatu ostean, txosna-batzordeak lortu egin du azken urteetan ezagun egin den osasun-etxearen atzeko gune latzetik alde egin eta erosoago batera joatea. Zehazki, udaletxearen inguruan egongo dira aurten txosnak, Sarrienarantz doan errepide berriko biribilgunean. Hor ere aldapa dago, baina inolaz ez gune zaharrekoa bezain malkartsua. «Txosnalarien lana zailtzen zuen hark», diote batzordeko kideek. Udalak, oraingoan, ez du agertokirik ipiniko, eta horren ordez txosna-gunekoa erabiliko du zenbait ekitalditarako.

Kokagune zaharra uzteko helburua bete dute, baina ez dute lortu gura luketen behin betiko lekura ailegatzea. «Lauzpabost urte barru Sabino Aranara hurbiltzea espero dugu», diote batzordekoek, «urbanizazio-aldetik bertan egongo den aldaketa handiak Leioako bizitzaren erdigune bihurtuko du ingurua, eta helburua hor egotea da».

> Txosnetako programazioa indartzeko ahalegin berezia egin duela dio txosna-batzordeak.

Baina horiek etorkizuneko kontuak dira, eta 2019ko sanjuanez berba egitea dagokigu orain. Ekainaren 20tik 24ra izango dira jaiak (egitarauak aurreko asteetan egingo diren zenbait ekitaldi jasotzen ditu baita ere, ekainaren 15ean egingo den Antzinako Eguna barne), eta horrek esan gura du iaz baino gau bat gehiagoz gozatu ahal izango dela aurten. Eta gauei dagokienez, apustu handia egin dutela aldarrikatzen du txosna-batzordeak. Su Ta Gar nabarmentzen da, zalantza barik gune horretan eskainiko diren kontzertuen artetik.

ERREFERENTZIALTASUNA. Urtez urte *klasiko* izaera lortu duen ekitaldia azpimarratu beharra dago: Akelarrea. «Txosna-guneko eskaintzarik politenetakoa da, eta eskualde osoan gure programazioa erreferentziala izan dadin lagundu duen emanaldietako bat». Umeentzako ikuskizuna egunez aldatzea izan da beste erabaki bat. Lehen domeka arratsaldez egiten zen, «jaiak amaitzeko zorian zeudela», eta oraingoan barikura eroan dute, txokolate-janaren ostera.

Azken urteetan arrakasta izan duen beste ekitaldi bati ere eutsiko diote: kuadrillen plater irekia. Hau da, kuadrilla bakoitzari txosnara sartu eta bere musika ipintzeko aukera ematea. Hori bai, txosna-batzordeak ezarritako baloreei begirunez jokatuta. Hau da, ez da hitz sexistarik, xenofoborik edota arrazistarik onartuko. ◀

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA
Heldu euskarari!
JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA
UDAN ERE EUSKARAZ!
6 -16 URTE BITARTEKOENTZAT **UZTAILA**
Matrikula zabalik ekainean!
16 URTETIK GORAKOENTZAT **UZTAILA ETA IRAILA** (B1 - B2 - C1)
Bulego ordutegia: 09:30-17:00
Horario de oficina: 09:30 - 17:00
Algortako etorbidea 104
48991- Algorta (Getxo)
944 606 671
idazkaritza@jagirre.eus
www.jagirre.eus

en arimak bere horretan dirau



Txosna-gunearen herri-egitaraua

Ekainak 20, eguena
21:00 Txosnen irekiera Mari Pepa eta Arlotegaz.
21:30 Saiheski-jana.
22:30 Kuadrillen plater-irekiak.

Ekainak 21, barikua
17:30 Txosnen irekiera.
18:00 Txokolate dastaketa.
18:30 Umeen ikuskizuna, eta Dantzatzeko Prest disko-festa.
22:30 Kontzertuak: Su ta gar eta Kaleko Urdangak.

Ekainak 22, zapatua
20:00 Txosnen irekiera.
20:30 Leioako aterpeko III. Binakako txapelketaren finala.
21:30 Sardina-jana.
22:30 Kontzertuak: Liher, Juantxo Skalari Rude Band eta Ira.

Ekainak 23, domeka
18:30 Txosnen irekiera.
18:30 Akelarrearen entsegua.
19:30 Aldats elektro-txaranga
22:30 Urrats erromeria.
00:00 Akelarrea.
01:00 Urrats erromeria.

*** San Juan jaien egitarau osoa ekainaren 10ean egingo du publiko Leioako Udalak**











San Juan gaua Suaren inguruan dantzan

Solstizioko sugarrak, kaleetatik erakundeen kontrolpera

Oso aspalditik, eguna luzeen edo laburren denean piztu izan dugu sua, behinola neguaren hasieran ere egiten genuela ia ahaztu zaigun arren. San Juangoari eutsi diogu, eta laster, herri denetan, ekitaldi ugari izango dira hainbeste liluratzen gaituzten garren aitzakian. Hori bai, guk eskua sartu barik.

Oso sasoi ezberdintzat ditugun arren, udako solstizioaren eta negukoaren, San Juan gauaren eta Gabonen arteko simetria aipatzen du Juan Antonio Urbeltz antropologoak. «Argi dago», dio folklorean beste aditu batek, Oier Araolazak, «dena dagoela lotuta eguzkiaren posizioarekin, eta horrek naturan eragiten dituen aldaketekin».

Bitxia da, dio Araolazak, sua gaur egun San Juan bezperari lotuta ezagutzen dugula, baina orain dela hamarkada gutxira arte neguko solstizioan, edo bestela esanda, Gabonetan ere, suek garrantzia izan dutela. Zelanbait esateko, eguzkiaren muturreko posizio biak gertatzen direnean zeruan, haren ordezkari xumea pizten dugu lurrean. «Ez hori bakarrik: birsortzeko duen botereagatik ere pizten dugu. Suak dena erre eta hiltzen du, baina aldi berean bizitza berria sortzen da errautsetatik, eta erraustutakoak indar handiagoa izaten du gainera. Neolitoaren lehenengo kulturetatik ezaguna da hori». Dena biribiltzeko, gaitzak sendatzeko ahalmena ere badu suak; sinbolikoki, gure bizitzetatik kendu gura ditugun gauzak uxatzeko balio digu. Ideia horren aldaera praktikoago bat ematen du Juan Antonio Urbeltzek: suak intsektuak aldentzen ditu, eta horrek izugarrizko garrantzia du uztaren aroa hastear dagoenean.



Zergatik 23an?

Uda zein negu, solstizioakaz lotutako ospakizunek ez dute zehatz-mehatz bat egiten fenomeno naturalagaz. Arrazoietako bat egutegiak historian izandako aldaketak izan daitezke. Bestela esanda, ekainaren 23a ez da beti izan gaur egun den une berean.

Gabonetan sua pizteko ohitura ia guztiz desagertuta dagoela, udan ere ez du inondik inora orain ez hainbeste izandako presentzia. Araolazaren esanetan, «sua orain landa-eremuarekin lotzen da, baina garrantzi handia izan du hirietan, eta azken hamarkadetan lekua galdu du». Adin batetik aurrerakoek ondo gogoratuko dute, ume edo nerabe zirela, San Juan bezperaren aurreko egunetako kartoi- eta paper-bilketa. Gaur egun, aldiz, debekatuta daude erakundeek «ofizialki» antolatzen ez dituzten suak, eremu urbanoan behinik behin: kalearen jabetza partekatua eta erabilera askea desagertu izanaren beste alderdi bat, hainbat egilek azpimarratu dutenez. ◂



Sopela San Pedro jaiak

«Urteko egun bakarrak dira denok elkarregaz egoteko»

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Sopela eta Larrabasterrako jai-batzordeak antolatu ditu San Pedro jaiak. Ekainaren 27tik 30era arte izango dira horiek, eta antolatzaileek iragarri dutenez, adin eta gustu denentzako egitaraua prestatu dute. Horien ondoren, Karmengo jaiak ospatuko dituzte, uztailaren 12tik 16ra.

Atzerako kontaketa hasi da Sopelako udaletxetik txupina jaurti eta San Pedro jaiei hasiera emateko. Aitziber Onaindia eta Garazi Torrealdai jai-batzordeko kideek iragarri digutenez, ekainaren 28an hasiko dira ospakizunok. Hala, lau egunez, ekitaldiz beteriko festez gozatu ahal izango dute sopeloztarrek, eta kanpotik etorritakoek. «Adin guztientzako eta gustu denentzako egitarau bat prestatu dugu. Jaiak denonak dira, urtean denok elkarregaz egoteko aukera eskaintzen digute ospakizunok eta behar-beharrezkoak direla uste dugu», diote. Zeregin horretarako, buru-belarri lanean dihardu jai-batzordea egunotan, «egitaraua ia-ia osatuta dago, baina lana dago oraindino. Badakigu zer egongo den, baina aurrera atera behar ditugu gauza horiek».

Sei urte igaro dira jai-batzordea osatu zenetik eta denbora-tarte horretan egindako ibilbidean lortutako esperientziak zeregin horretan laguntzen duela diote Onaindiak eta Torrealdaik: «Urtero jende berria dator jai-batzordera, baina martxa hartua dugu jada. Urtez urte errazago egiten zaizkigu antolaketa-lanak». Jai-batzordearen izaera herrikoi hori da gakoetako bat. Sortu zenetik argi zuten Sopelako eta Larrabasterrako jaiek «herritik herriarentzat» izan behar zutela, eta fidel heldu diote lema horri. Udalerriko elkarteek eta norbanakoek osatzen dituzte festak, baita kuadrillek ere. Aurten, gainera, Ugeragako nesken futbol-taldea batu da zeregin horretara, eta Larrabasterrako jaietan ekimen berezi bat egingo dutela iragarri dute antolatzaileek.



«Egitaraua osatuta dago ia-ia, baina lana dago egiteke oraindino. Badakigu zer egongo den, baina aurrera atera behar ditugu»

AITZIBER ONAINDIA ETA GARAZI TORREALDAI
JAI-BATZORDEKO KIDEAK

Kuadrillen jaitsiera, jolasak, dantza-plaza, kontzertuak... Urtez urte arrakastatsuak diren ekitaldiak izango dira aurten ere Sopelan. Horien artean paella-txapelketa ere nabarmendu dute sopeloztarrek: «Aurten hirugarren aldiz antolatuko dugu, eta aurrekoen arrakasta ikusita, oraingo honetan ere jende asko biltzea aurreikusten dugu». ◂









Erandiogoikoa Gorpuzti jaiak

Udari ondo-etorria egiteko baliatuko dituzte jaiak aurten

Inoiz baino beranduago etorri zaizkigu aurten inauteriak, aste santua... eta Erandiogoikoako Gorpuzti jaiak. Bertakoak ohituta daude urtero datak aldatu behar horretara, eta berdin-berdin ahaleginduko dira ondo baino hobeto pasatzen (baita lortu ere, seguru) jaiek iraungo duten lau egunetan.

Egutegi liturgikoan, ipar-hemisferioan, udaberriko lehenengo ilargi betearen osteko bederatzigarren domekaren ondorengo lehenengo eguena da Gorpuzti Eguna, Wikipediak argitu digunez. Argitu edo... Kontua da, eta Erandiogoikoan ondo dakite hori, urtez urte egutegian dantzan ibiltzen direla bertako jaiak. Aurten, udaren hasieragaz bat egitea egokitu zaie, eta San Juan bezperara arte izango dituzte ospakizunak. Sute barik, hori bai. «Leioako eta Sondikako jaiakaz batera izango dira aurten hemengoak, baina tira, ea jendea animatzen den», diote jai-batzordeko kideek.

Betiko moduan, Gorpuzti Egunean bertan hasiko dira jaiak, eguen batean beraz, eta domekara arte iraun. Zozketaz erabakitzen dute pregoia nork irakurriko duen, eta aurten Goi-Alde dantza-taldeari egokitu zaio. Ondorengo egunetan ere edukiko dute protagonismorik goialdetarrek, bai barikuan bai zapatuan emanaldi bana egingo baitute, nagusiek lehenengo eta umeek ondoren. Ez hori bakarrik: dantza-taldeko kide askotxo jai-batzordean ere badabiltza.

> Ilargi-egutegiaren apeten arabera mugitzen dira Erandiogoikoako jaien datak. «Aurten Leioakoakaz eta Sondikakoakaz batera izango dira hemengoak, baina tira, ea jendea animatzen den», diote jai-batzordeko kideek.

AFARI, BAZKARI ETA MERIENDA. Dantzaz gainera, gastronomia izaten da edozein jairen ezinbesteko beste osagaietako bat. Ohi denez, herri-afaria eta herri-bazkaria egingo dituzte Erandiogoikoan, lehenengoa eguenean eta bigarrena zapatuan. Otorduotarako txartelak aldez aurretik hartu beharko dira Dandaka tabernan, afarikoak hamabost euroan eta bazkarikoak merkeago, bost euroren truke.

Gainerakoan ere urteroko egitaraua izango da, gutxi gorabehera. Ez da faltako, adibidez, Erandioko Udalaren Euskara Zerbitzuak antolatutako Olgetan Solas ekimena, familiartean kirol-jolasak egiteko. Bariku arrastian izango da hori; apur bat beranduago, 21:30ean, Loiuko Danontzat elkarteak prestatutako elkartasunezko txanpinoiak dastatzeko aukera egongo da. Eta domekan, jaiak biribiltzeko, tortilla-lehiaketa. Esanda geneukan gastronomia inportantea dela, ezta? ◂

Egitaraua



Ekainak 20, eguena
12:00 Meza.
12:40 Elizaurreko Aurreskua eta *luncha* herriko nagusientzat.
19:30 Txupinazoa eta pregoia. Goi-Alde taldeak irakurria. Ondoren, Auzokoa Herrikoi Elkarteak antolatutako batukada eta dantza.
19:45 Buruhandiak eta musika-eskolako trikitilariak.
21:30 Herri-afaria.
23:30 Erromeria: Iratzar taldea.

Ekainak 21, barikua
18:30 Olgetan Solas, familiarteko kirol-jolasak.
20:30 Goi-Alde taldeko nagusien dantza-ikuskizuna.
21:30 Txanpinoi-jate solidarioa, Loiuko Danontzat elkartearen eskumenez.
23:00 Erromeria: Barullo eta Zirkinik Bez.

Ekainak 22, zapatua
12:00 Kalejira eta umeen dantza-erakustaldia, Goi-Aldek emana.
13:00 Puzgarriak.
15:00 Herri-bazkaria.
17:00 Taberna Ibiltaria.
21:30 Pintxo morunoen dastaketa.
22:00 Erromeria: Oxabi. Ondoren, DJ Munza.


Ekainak 23, domeka
11:00 Herriko gazteen Lehen Jaunartzea, eta Musika Banda.
12:30 Puzgarriak.
14:30 Tortilla-lehiaketa.
18:00 Sari-banaketa.
21:00 Kupel-hustuketa eta jaien amaiera.





Musikhariak Aukera Okerra

«Algortako jaietan arituko gara, uztailaren 30ean, Txiki Otaegin»



TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO** ARGAZKIA: **MARIA GOROSTIOLA** ▶

Aukerarik okerrena izan ez zelakoan nago, amaiezinak diren gau horietarikoren batean, ehunka garagardoren eta ke jasanezinaren artean, laukote honen partaiderik zaharrenak beren kideei mehatxu egin zienean. Argi dagoen bakarra hauxe da: betiko lagun horien izenak, Aukera Okerra beharrean, Alaintxoren Semeak izan beharko lukeela.

Nortzuk zarete Aukera Okerra (zeintzuk taldetatik zatozte, etab.) eta zelan sortu zen taldea sortzeko ideia? Aukera Okerra Aldaik, Torrek, Torrentek eta Alaintxok osatzen dugu. Esan daiteke denak Algortan orain dela 10-15 urte hasi zen Punk-Oi mugimendutik gatozela. Taldea sortzearen ideia, ba... Alaintxok 4 Anai musika-taldearen amaiera gero eta hurbilago ikustean beste talde bat sortzea erabaki zuen. Hainbat mehatxu eta inposizioren ondoren, gainerakook ez genuen aukerarik izan bai ala ez esateko, eta hemen gaude.

Taldeko kide gehienek, zuen aurreko taldeetan, musika-mota oso ezberdina egiten zenuten. Zer dela eta aldaketa hori? Seguru aski nagusiak egin garelako (ez helduak), edo betiko musika eta letra berberak behin eta berriz errepikatzeaz potrotaraino gaudelako.

Diskoaren eta zuen kamiseten diseinuak oso bereziak dira, zuek egiten dituzue ala lagunen batek egiten dizkizue? Pergoi Lab-eko Anderrek egiten dizkigu. Barne Barnetik elkarteko kartelak ikusita ezagutu genuen eta pentsatu gabe berari eskatu genizkion kamiseta eta LParen diseinuak. Hala ere, kamiseta baten diseinua Torrentek egin du.



Zorte txarra baino ez
Zarata Estudioa, 2019

Diskoa Berangoko Zarata estudioetan grabatu dugu, Peralesen eskutik. Egia esan nahiko pozik gaude emaitzarekin, Peralesek lan handia egin behar izan du aurrean zuen desastrearekin.

Diskoa formatu bakarrean atera dugu: LP formatuan. Eta zergatik? Laurok binilo-zaleak garelako eta gaur egun ezer CD formatuan ateratzeari ez diogulako inolako zentzurik ikusten. Hala ere, laster abestiak interneten eskegita egongo dira, hainbat plataformatan.

Disko berria kalean izanda, aurkezpen-kontzertu asko egiteko asmoa duzue? Zuzenekoen datak eta lekuak aurreratzerik bai? Aurkezpen-kontzertua? Ez gara hain profesionalak, baina dataren bat badaukagu bai. Ekainaren 8an La Kadenako jaietan egongo gara, Algortan geratzen zaigun taberna-gune errespetagarri bakarra defendatzen, «*Satis, Sustrai, esta puta mierda es lo q hay*...», Coca d'Anxova talde famatuaren esaldiak dioen bezala. Uztailaren 30ean, aldiz, Algortako jaietan ibiliko gara, Txiki Otaegi plazan. Udaren ostean badaukagu dataren bat baita ere, baina konfirmatu barik.

Zelan ikusten duzue zuen herriko musika-taldeen eta eskaintza kulturalaren egoera? Uf, Getxoko Udalak bultzatzen duen eskaintza kulturala? Botaka egiteko modukoa da, eskerrak gazte mugimenduek alternatibak lantzen dituztela. Herriko musika-taldeei dagokionez, ez dago asko esaterik, pare bat talde gazte daude gogo eta indar askorekin, baina horietatik aparte, ezertxo ere ez.

Getxo Antzoki berriaren zabalpena eta zuen disko berriaren argitaratzearekin batera... aurkezpen-kontzertua Getxo Antzokiko 1.000 ikuslerentzako gelan egiteko asmorik duzue? Kar kar kar, egia esan ez dugu gure burua 1.000 pertsonaren aurrean ikusten, baina bueno... Esne Beltzak RIPen abesti eder bat suntsitzeko eskubidea badauka, beharbada gu ere Antzokira igo gaitezke eta Nino Bravoren pare bat bertsio egin.... *Fuck* Esne Beltza! ◀

Gorlizko erietxea Mendeurrena bete du

Eguzki-izpien eta itsasoko haizee

Ehun urte igaro dira Gorlizko erietxeak ateak zabaldu zituenetik. 1911n eraikitzen hasi ziren azpiegitura hori eta handik zortzi urtera zabaldu, inguruko iodoak eta eguzki-orduek baldintza hobezinak eskaintzen zituztelako umeen hezurretako tuberkulosiari aurre egiteko. Hasiera batean, moja-talde batek zuzentzen zuen osasun-etxea; gaur egun, Osakidetza da beraren arduraduna.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ▶



Bizkaian ume ugari hiltzen zen tuberkulosiaren eraginez XX. mendearen hasieran. Higiene-faltak, pilaketak eta elikadura egoki bat izateko ezintasunak infekzio hori hedatzen lagundu zuten sortu berriak ziren auzo langileetan, Ibaizabal itsasadarraren inguruetan eta Meatzaldean batez ere. Enrique Areilza doktoreak (1860-1926) Trianoko Ospitaleko zuzendari izendatu zuten 1882. urtean, eta hogei urtez aritu zen bertan lanean. Tarte horretan, gizarte osasuntsu baten garrantziaz ohartu zen. Hala, beste mediku batzuen laguntzagaz, tartean Luis Larrinagarena (1878-1953), tuberkulosia zuten umeentzako ospitale baten beharra ikusi zuten. 1909 inguruan itsas-erietxeen inguruan berba egiten hasi zen Europan, eta horretan oinarrituta, Areilza eta Larrinaga doktoreek proiektu bat aurkeztu zioten Bizkaiko Aldundiari. Horrek begi onez ikusi zuen ideia hori, eta Mario Camiña, Aldundiko arkitektoa, izendatu zuten erietxea eraikitzeko lanen arduradun.

Bizkaiko kostaldean eraiki gura zuten ospitalea, eta Gorliz eta Lekeitio artean non egin zalantzan egon ondoren, lehenengoa aukeratu zuten, Bizkaian eguzki-ordu gehien dituen udalerria delako, baita iodo-kontzentrazio handia zegoelako paraje horretan. Hala, Luis Larrinaga doktoreak proiektuaren inguruko txosten bat aurkeztu zuen Erroman (Italia) 1912ko *Esposicione Internazionale d'Igiene Sociale* delakoan, eta lehenengo saria jaso zuen.

GORLIZKO ERIETXEAREN SORRERA. Camiñas Vienako (Austria) sezesionismo-korrontean oinarritu zen ospitalearen azpiegitura eraikitzeko. Hala, 1919ko ekainaren 29an inauguratu zuten Gorlizko Itsas-Erietxe Helioterapikoa izenagaz eta Luis Larrinaga izendatu zuten zuzendari. Azpiegitura eraikitzeko, hormigoi armatua erabili zuten. Material hori oso gutxitan erabilia zen garai horretan, eta berritasun ikaragarria izan zen azpiegitura zibil batean hura erabiltzea.

Ezaugarri modura, Juan Manuel Goikoetxea gorliztarrak, *El Sanatorio de Gorliz. 100 años* liburuaren egileak azaldu duenez, erietxearen erdigunean dagoen Bizkaiko Aldundiaren armarrian laranjak ikus daitezke, ezkurrak beharrean. Dirudienez, Maniseko (Valentzia) enpresa bati eskatu zioten armarri hori osatzeko zeramikazko baldosak egitea, eta haritzari ezkurrak ipini beharrean, laranjak ipini zizkioten, haritza beharrean laranjondoa balitz legez.

Ehun urte, sei paneletan banatuta

Pazienteak
Tuberkulosiak erasandako lehen umeengandik hasi eta gaur egungo gaixo kroniko eta errehabilitazioan daudenenganaino.

Profesionalak
Laborategi eta operazio-geletan aritzen ziren Karitateko Ahizpengandik hasi eta gaur egun lantaldea osatzen dutenera arte.

Tratamendu medikoa
Helioterapia eta higienismotik errehabilitazio espezializatura eta zainketa aringarria behar dutenei arretara.

Kudeaketa
Bizkaiko Aldundiak kudeatzetik Osakidetzan integratzera arte.

Eraikina
Jatorrizko ideia, arkitektoa, ereduak eta eraikin modernistaren eraikuntza.

Gerra Zibila
Umeen ebakuazioa eta ondorengo aberriratzea.





n artean osatzeko etxea









OSAKIDETZA

Ehun urteko ibilbidea izan du Gorlizko erietxeak. Mende horretan zehar, askotariko aldaketak izan ditu, azaletik zein barrutik. HODEI TORRES

Lehenengo urteetan, eguzkiak, elikadura egokiak eta itsasoaren aire garbiak umeak sendatzen lagundu zuten. Gorlizkoa inguruotan zegoen mota horretako erietxe bakarra zen, eta oraindino ere bada. Bertan behar egiten zuten mojak erizainak ziren, eta zuzen-zuzeneko harremana zuten inguruko auzokideakaz ere. Medikuek txertoak ipintzen, ebakuntza-gelan laguntzen eta beste hainbat kontu egiten erakusten zieten, eta herrira joaten ziren txertoak jartzera, besteak beste.

Eraikina inauguratu eta hamazortzi urtera, Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herria gogor kolpatu zuen. Hala, erietxean zeuden ume denak ebakuatu eta Sota familiaren Goizeko Izarra itsasontzian Frantziara eraman zituzten.

> Gerra Zibilak Euskal Herria kolpatu zuenean erietxeko umeak Frantziara eraman behar izan zituzten.

60ko hamarkadan tuberkulosi-kasuek behea jo zuten, eta gaitz neurologikoak artatzen hasi ziren bertan, hala nola poliomielitisa eta burmuineko paralisia. 1970ean, ordea, erietxea Ebakuntza Ortopedikoko Institutu bihurtu zen, eta 1985ean Osakidetzak egoitzaren eskumena lortu zuen. Neurri horregaz, lantaldea handitu eta eraikina eraberritu zuten. Gaur egun Bizkaiko errehabilitazio-erreferente bilakatu da, baita barne-medikuntzan eta paliatiboetan ere. ◂





EusLider Getxon euskara sustatzen

Gazteentzat euskara atsegin eta dibertigarria egitea helburu

EusLider, «hizkuntza-lidergoa sustatzeko» proiektua, abian ipini du Uribe Kostako AEK-k Algortako San Nikolas ikastolan, 3. DBHko ikasleakaz batera. Ekimen horren nondik norakoen xehetasunak azaldu dizkigu Ander Herranz AEK-ko irakasle berangoztarrak.

KERMAN SANTIAGO ALKORTA ▶



Ander Herranz izan da AEK-ko teknikaria San Nikolas ikastolako ikasleakaz. HODEI TORRES

Aurten ekin diote Uribe Kostan ere EusLider proiektuari, Algortako San Nikolas Ikastolan. Gainera, datorren urtean Betiko Ikastolak bat egingo du ekimenagaz. Besteak beste, Zornotzako Urritxe BHIko ikasleek, Ordiziako Udaltzaingoak, Portugaleteko udal-langileek eta Gernikako Futbol Taldeko jokalariek proiektuan parte hartu dute daborduko egitasmoan.

Helburuak gazteen hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskara gehiago erabiltzearen aldeko aldaketa sustatzea dira. Hori lortze aldera dabiltza 2018-2019 ikasturtean San Nikolaseko talde bategaz lanean, hizkuntza-ohituren aldaketa «modu atsegin eta dibertigarrian» egin daitekeela erakusteko. «Jabekuntza- eta ahalduntze-prozesua gauzatu nahi dugu», esan digu Ander Herranzek (Berango, 1989).

HIRU ZIKLOKO PROZESUA. Hiru ataletan banatzen dute proiektua: lehenengo, eskolan AEK-ko teknikariek ikasle denei azaltzen diete hizkuntza-aniztasunaren beharra, eta boluntarioak eskatzen dituzte hurrengo eskoletan ekintzak gauzatu ditzaten. Izan ere, bigarren zikloan eurak, ikasleak, izango dira protagonistak, euren esku egongo baita ekintza sozialak garatzea: orain arte lehiaketak, ginkanak eta bideoak egin izan dituzte, besteak beste.

Azken zikloa hurrengo ikasturtean egingo dute: eurek emango diete 2. DBHko ikasleei lehenengo zikloko eskola. «Hizkuntzarekiko jarrerak lantzea, eraldaketa sustatzea, portaera berriak sortzea eta hizkuntza-lidergoa indartzea ditu helburu», esan digu Herranzek. 75 ikasle inguru ziren lehen zikloan; bigarrenean, ordea, hamaika. «Batzuek oso ondo egiten dute lan, Beste batzuek, berriz, eskolak galtzeko asmoz izena eman zuten. Hala ere, laster interesatu ziren eta motibatuta daude orain», diosku.

> Argudio positiboen erabilera egiten dute ikasleakaz: «eleaniztunak izateak aberastu egiten gaitu».

KUTSU POSITIBOA EUSKARARI. AEKn hizkuntzari «bizio positiboa» ematen saiatzen direla dio Herranzek: «Hizkuntzarekiko ideia negatiboak etsitu besterik ez du egiten, guk argudio positiboen erabilera egiten dugu ikasleekin: eleaniztunak izateak aberastu egiten gaituela diogu». ◀



Barize lodiak

Zain-barneko laserraren eraginkortasuna egiaztatzen du 1.500 kasuren inguruan egindako ikerketak




Goi-mailako profesional kualifikatuek osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea.

Mina, astuntasuna, azkura eta zain hanpatuak dira barize lodiak dituztenen sintometako batzuk. Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea doktoreak azalduko digu zelan laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barize barik bizitzen.

ZAIN-BARNEKO LASERRA BARIZEAK KENTZEKO BEHIN BETIKO METODOA DA? Galdera horri gure esperientziaren benetako datuen bidez erantzungo diot: zain-barneko laserraren birgaixotze-tasa %0,6koa da tratamendua amaitu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntza-gela batean operatutako barizeen %20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen %40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain-barneko laserra aplikatzen, harrezkeroztik barize lodien 1.800etik gora kasu tratatu ditugu eta emaitzak bikainak izan dira. Pertsona horiek ez dute minik, azkurarik edo astuntasunik hanketan eta, gainera, hainbeste kezkatzen zituzten koskorrak desagertu zaizkie. Dermitek klinikan dihardugunok ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arrazoi dela eta, lehenengo hamabi hilabeteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro.

ZERGATIK AUKERATU DU TEKNIKA HORI DERMITEKEK? Zain-barneko laser-mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengoa aparta delako. Guk tratatutako 1.500 kasuren inguruko ikerketak bermatzen ditu datuok. Duela gutxi Denverren, Estatu Batuetan, izandako Laser Mediko Kirurgikoaren Sozietate Amerikarraren (ASLMS) kongresuan aurkeztu genuen ikerketa hori. Kongresuko komunikazio onenaren saria jaso genuen, eta oso harro gaude.



Orain gutxi Dermitekek Denverreko (AEB) kongresu batean aurkeztutako ikerketaren kasu bi.

ZERTAN DATZA TRATAMENDUA? Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo aldian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler ekografia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua zelakoa izango den azaltzeko. Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure webguneko inprimakia beteta egin daiteke, gura izanez gero. Aldez aurretik pazientearen argazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko. Hurrengo kontsultan, azaleko zein sakoneko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean medikutaldea zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubetean eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Zuntz oso mehe baten bidez, zainaren barrutik eragiten du laserrak, eta hori erabat itxi eta desagerrarazten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu, eta anestesia lokala besterik ez dugu erabiltzen.

Amaitutakoan, pazientea oinez aterako da klinikatik ordu erdiz ibiltzera, hankan konpresio-galtzerdi bat daroala. Ohiko jarduerari berehala ekin diezaioke berriro, lanari ere. Egun bi, hilabete bi eta 9-12 hilabete igaro ondoren ikusiko dugu pazientea berriro klinikan, barizea berriro agertu ez dela ziurtatzeko. **P.S.E. 144/16**

Zain-barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzeko ezaugarriak:

- **Birgaixotze-tasa txikia: Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuren artean egindako azterlan baten arabera, %0,6koa da. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatu eta bermatzeko.**
- **Arrisku gutxiago: teknika ez da erasokorra. Kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza-ondorengorik bakoa da.**
- **Anestesia lokala erabiltzen da eta saio berean hanka bietako safena benak trata ditzakegu.**
- **Tratamendu ondorengoko deserosotasun gutxiago: pazientea oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eroan beharko du. Egunean birritan ibili behar du, aste bitan zehar, besterik ez.**
- **Berehala hasiko da ohiko bizimodua izaten: gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.**



Uribitarte Pasealekua, 11 - 12, Isozaki Dorreak, 48001 BILBO
Telefonoa: 94 401 01 10
www.dermitek.com

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

Dominoan

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



Non arraio

Bila itzazu irudi nagusian honoko elementu hauek:



Irudi engainariak

Hamabi zati hauetatik bost irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako zazpiak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiagaz. Identifika itzazu.



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?






Saria


Txikitxoentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 6-8 urte arteko umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, ekainaren 14a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Hamabost

Alde handia dago irudi nagusiko zuhaitzaren eta goiko honen artean. Guztira 15 desberdintasun dituzte biek. Ikusten dituzu?


GARBINE UBEDA

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa
Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru sarietako batez gozatzeko sarrerak irabaz ditzakezu. Animatu!



Hiru sarietako batez gozatu gura baduzu, ekainaren 17a (astelehena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (norako sarrerak gura dituzun ere adierazi, mesedez): hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

Sariak

Bay of Biscay Festival



Uztailaren 26tik 28ra Bermeon egingo den musika-jaialdi ederraz gozatzeko banakako bonu bi zozkatuko ditugu.

Getxo Jazz jaialdia



Uztailaren 3tik 7ra egingo den Getxoko jazz-jaialdi beteranoaz gozatzeko sarrera bikoitzak dauzkagu banatzeko.

UrdaibaiOn txangoak



Ontzira igo eta ordu biko txango zoragarriaz gozatu Urdaibain. Hamabi laguneko talde batentzat bonua zozkatuko dugu.

Zozketa
Baserriko dendaren otzara

Berangoko Baserriko dendak emandako otzara paregabea zozkatuko dugu izena ematen duten HIRUKAlagunen artean. Izenak adierazten duenez, sasoiko produktu freskoak ematen ditu Baserrikok, bai Lantzarte auzoko dendan bai etxez etxe. Sano eta goxo, euren leloa.



Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 17a (astelehena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Urdaibai On

Kultura eta aisialdirako zerbitzu kooperatiba elkarte txikia




URGAIN

Irakaskuntzari zuzendutako ibilbidea



TALDEAK

Kultura, aisia eta jana



IBILBIDEAK

Kultura eta Turismoa

IBILBIDE TURISTIKO KULTURALAK ITSASONTZIAN, HAMAIKA GUNE EZBERDIN ONTZIRATZEKO UGARANEAN ZEHAR

URDAIBAI BIOSFERAREN ERRESERBAN



Erreserbak eta bezeroei arreta

626859477 Iñaki

urdaibaion@urdaibaion.com

www.urdaibaion.com



E! Erandio UDALA AYUNTAMIENTO

KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA

Getxo bizi ezazu

Gidabaimena euskaraz

Atzeko jesarlekua estreinatu aurretik...

Praktika ezazu!

Zozketa

★★★

Irabazleak

2019



Itxaso Gorbeña · Ilargi García · Ana Gutiez

GETXO



Ane Mendoza · Eneritz Yarince Paiz · Emma Manna

ERANDIO

* 2018an gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu dutenen artean 100 euroko erregai-txartelak zozketatu ditugu

ALKARBIDE Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea

Bizkaia foru aldundia diputación foral